

2. (1532)



2.1. 1532. URTEA

2.1.1. Aizarnako, Zestoako eta Santa Engraziako elizei buruzko agiria

- 1532-I-1ean, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren bidez Joan Amilibia hargin-maisuak ordainagiria eman zion Martin Ondalderi. Martin, hain zuzen, Aizarnako elizako administratzailea zen. Joan Amilibia Aizarnako eliza berria eraikitzen ari zen, eta bere lanagatik, lehen ordaindutakoaz gain, Martinek 10 dukat ken 10 txanpon eman zizkion.

Ordainagirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Artzuriaga, Joan Zulaika “Beltza” eta Martin Ibañez Zubiaurrekoa (ikus [XVI. m. (32-I) 2] agiria).

Jarraian Martin Ondaldek ordainagiria eman zien Lope Zelaiari eta Martin Ezenarriori. Martin Ondalde Aizarnako elizako administratzailea zen orduan. Beste biak lehenago izan ziren, eta elizarenak ziren 7 dukat eman zizkieten Martin Ondalderi. Diru hura eliza berria eraikitzeko erabiliko zen. Lekuko Martin Artzuriaga, Joan Zulaika “Beltza” eta Martin Ibañez Zubiaurrekoa izan ziren (ikus [XVI. m. (32-I) 3] agiria).

Ondoren, leku berean Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: Aizarnako elizako administratzaile Joan Arano eta Martin Ondalde, eta Altzolarats jauregiko Ana Arretxe alarguna. Joan Gebara apaiz zenak testamentuan agindua utzi zuen Aizarnako elizari 20 kintal burdina emateko, eta agindu hura Ana Arretxek bete egin zuen. Ondorioz, Martinek eta Joaneke ordainagiria eman zioten Anari. Diru hura eliza eraikitzen ari zen Joan Amilibia hargin-maisuari ordaintzeko izan zen. Lekuko Joan Arregi-Zabala, Domingo Aranguren eta Joan Goikoetxea izan ziren.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Ana Arretxek Joan Aranok zeukan zorra aipatu zuen. 26 dukateko zorragatik Anak ondasunak exekutatu egin zizkion Joani. Joaneke zioenez, 20 dukaten ordainagiria eman zion Anak, kopuru hura Aizarnako

elizari ordaintzekotan, baina 20 dukatak Martin Ondaldek ordaindu zituen.

Beraz, hiru aldeek erabaki zuten, handik aurrera Joan Aranok Martin Ondalderi 20 dukat eta auzi-gastuak ordainduko zizkion, eta Ana Arretxeri sei dukat. Ondasunen exekuzioak bere bidetik aurrera egingo zuen (ikus [XVI. m. (32-I) 4] agiria).

- 1532-II-2an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Ondalde eta Joan Amilibia hargin-maisua azaldu ziren. Martinek Joani 6 dukat eman zizkion (lehendik emandakoez gain), eta Joaneke ordainagiria eman zion Martini.

Lekuko Migel Artazubiaga, Domingo Lizarrarats eta Joan Ereño izan ziren (ikus [XVI. m. (32-II) 3] agiria).

- 1532-II-18an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, batetik Santa Engrazia ermitako Martin Artzuriaga eta Joan Arano administratzaileak, eta, bestetik, Maria Joango Bengoetxea elkartu ziren. Maria Joango Domingo Bengoetxea zenaren alarguna zen. Senar zenak 12 txanpon zor zizkion ermitari, eta alargunak ordaindu egin zituen. Horregatik, Martinek eta Joaneke ordainagiria eman zioten Maria Joangori. Lekuko Martin Artazubiaga, Joan Urbietta eta Joan Otaegi izan ziren (ikus [XVI. m. (32-II) 14] agiria).

- 1532-II-20an, Aizarnan, Errezilgo Joan Abieta hargin-maisua eta Zestoako Joan Amilibia hargin-maisua aurkeztu ziren Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Joan Abietak Zestoako elizan 1524. urteaz gero kapera berria eraiki zuen, orduan egindako kontratuaren arabera (ikus *III ZESTOA XVI. MENDEAN (1521-1530)* liburuko [XVI. m. (24) 11], [XVI. m. (28-IV) 9] eta [XVI. m. (30-VI) 9] agiriak).

Zestoako eliztarrek 340 dukat ordaindu behar zizkieten guztira Joan Abietari. Joan Abietaren izenean, azken aldian kapera Zestoako Joan Amilibia hargin-



2.1. irudia. Aizarnako erretore-etxea.

maisua amaitu zuen. Hala ere, Zestoako eliztarrek 102 dukat eta zenbait txanpon ordaintzeke zeuzkaten. Haiek guztiak kobratzeko eskubidea errezildarrak Joan Amilibiari eman zion.

Agirian lekuko zestoar eta zumaiar hauek izan ziren: Domingo Urbieta apaiza, Tomas Amilibia eta San Joan Amilibia (ikus [XVI. m. (32-II) 16] agiria).

- 1532-VI-16an, Aizarnan, Joan Amilibia hargin-maisua eta Joan Bengoetxea aurkeztu ziren Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Hargin-maisua Aizarnako eliza berria eraikitzen ari zen, eta Joan Bengoetxea zegoen orduan elizako administratzaile. Hain zuzen honek hargin-maisuari 27 dukat eta 150 marai ordaindu zizkion bere lanagatik. Lekuko Martin Perez Artzubiagakoa, Esteban Eztiola eta Martin Azkue zestoarrak izan ziren.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Joan Bengoetxeak (Martin Ondalderen ondorengo administratzaileak) Joan Amilibiari eskubidea eman zion 22 dukat Zestoako Joan Kamiori kobratzeko (ikus [XVI. m. (32-VI) 8] agiria).

- 1532-VI-30ean, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek aurkeztu ziren: Joan Pagino eta Joan Amilibia hargin-maisua (bigarrena lehenaren fidatzaile gisa). Joan Paginok enkantean Zestoako eta Aizarnako elizetako hasikinak jasotzeko eskubidea lortu zuen, eta ordainetan bi elizei 34,5 dukat emango zizkien hurrengo San Martin egunerako; bi heren Aizarnako elizako administratzaileari eta heren bat Zestoako elizakoari.

Lekuko Joan Otxoa Artazubiagakoa, Martin Zulaika eta Joan Elurra zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-VI) 16] agiria).

- 1532-VII-14an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek bildu ziren: Joan Otxoa Artzubiagakoa, Altzolarats jauregiko Ana Arretxe alarguna eta Domingo Aranguren. Joan Otxoak enkantean urte hartako Aizarnako erretoretzako hamarrenak jasotzeko eskubidea lortu zuen, eta eskubide hura Ana Arretxeri saldu zion 16 dukatean. Horretarako Ana Arretxek zilarrezko hiru katilu eman zizkion berme gisa. Anak hurrengo San Martin egunean ordainduko zion zorra; bestela zilarrak Joan Otxoarentzat geratuko ziren.

Jarraian Ana Arretxek ahalmena eman zion Domingo Arangureni hamarren haiek jasotzeko, baina ezingo zituen saldu Anaren baimenik gabe. Kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Joanes Ipintza apaiza, Joan Bengoetxea eta Domingo Bengoetxea anaia (ikus [XVI. m. (32-VII) 4] agiria).

2.1.2. Zestoako Kontzejuaren agiriak

- 1532-II-6an, Zestoako udaletxean Kontzejua bildu zen. Blas Artazubiaga eskribauarekin batera han ziren zestoar hauek: Martin Perez Artzubiagakoa alkatea, Domingo Lizarrarats fiela, Joan Bengoetxea zinegotzia, Fernando Olazabal medikua, Esteban Artazu-

biaga, Pedro Iribarrena, Joan Erretzabal, Domingo Aranguren, Joan Aurreko-Goikoetxea, Domingo Lizaso, Joan Arregi-Zabala, Martin Fernandez Edarritzagakoa eta beste zenbait.

Sebastian Artazubiagak, Martin Ondaldek eta Domingo Lizarraratsen Kontzejuari hurrenez hurren 12, 8 eta 12 dukat maileguz eman zizkioten, Probintziari sukaldeka Zestoari zegokiona ordaintzeko eta beste zenbait gastutarako. Kontzejuak obligazio-agiria eman zien hiru zestoarrei. Lekuko Joan Perez Arretxekoa, Martin Legarda eta Joan Arregi izan ziren (ikus [XVI. m. (32-II) 8] agiria).

- 1532-II-18an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauak agiria idatzi zuen. Zestoako hiribilduko, errebaletako, Ibañarrietako, Igartzako, eta Ereñoko biztanleei Aragoiko oso olio ona hornitzeko enkantea Maria Perez Mantelolakoak (edo Aiakoak) irabazi zuen. Libra olio 49 sosean salduko zuen. Fidatzaile gisa Joan Arbestain (edo "Joan Akoa" goitzenekoa) aurkeztu zuen Maria Perezek.

Olio oso ona ez bazen, edo beste olio batzuk nahastuta baldin bazituen, alkateak edota fielak aztertuta, aldiko 40 maraiko isuna ordaindu beharko zuen Maria Perezek. Erdia salatzailearentzat izango zen, eta beste erdia herri-bideak egiteko.

Hurrengo inauteriak arte libra olio ordaintzeko sosak ohikoak izango ziren. Errealak 81 sos balioko zuen, txanponak 18 sos eta erreal ingelesak 63 sos.

Lekuko Domingo Lizarrats gazteena, Martin Artzuriaga (edo Martin Itziar) edo Joan Zubiaurre izan ziren. Martin Perez Artzubiagakoa alkateak, fielak (Domingo Lizarrats aitak) eta Domingo Lizarrats gazteak (semeak) sinatu zuten agiria (ikus [XVI. m. (32-II) 12] agiria).

- 1532-III-22an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domingo Lizarrats aita azaldu zen, Zestoako Kontzejuko fiela. Domingok herriko alkateari salatu egin zion herri-lurretan zenbaitek intxauroak

rondoak aldatu zituztela. Alkateak, bere informazioa lortu ondoren, probestuordeari intxauroak haiek kentzea agindu zion.

Orduan Fernando Olazabalek korrejidorearen agindua ekarri zuen alkatearentzat. Domingo fielak, Kontzejuaren baimenez, ahalordea eman zien korrejimenduko Beltran Arizmendiri, Joan Perez Arranibarkoari eta beste bi prokuradoreri auzian Kontzejuak ordezka zezaten. Lekuko Migel Artazubiaga, Anton Sasiola eta Pedro Artazubiaga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-III) 8] agiria).

Azpeitiko eta Zestoako Kontzejuek auzia zuten Valladolidko Kantzelaritzan Joan Beltran Iraetarekin, Iraetan harrizko zubia erori eta berria egiten ez zuelako (ikus *III ZESTOA XVI. MENDEAN (1521-1530)* liburuko [XVI. m. (29-I) 4] agiria). Joan Beltran eta bere prokuradore Anton Oro hil egin ziren, eta Kontzejuen izenean Joan Otxoa Urkizukoa prokuradoreak 1532-V-10ean eskatuta, errege-agindua bidali zieten Joan Beltranen oinordekoei.

- 1532-V-22ko aginduak zioenez, Joan Beltranen alargunak eta seme-alabek Valladolidko Kantzelaritzan azaldu behar zuten (edo prokuradorea bidali), 15 eguneko epean, auziari jarraipena ematearren.

- 1532-VI-11n, Iraetan, Blas Artazubiaga eskribauak Maria Perez Idiakaitz-Lilikoari (Joan Beltranen alargunari) eta Maria Beltran Iraeta eta Ana Iraeta alabei errege-aginduak zioena jakinarazi zien. Lekuko Pedro Gesalaga, Migel Artazubiaga, Felipe Lasalde eta Anton Sasiola izan ziren, Zestoako eta Debako auzotarrak.

- 1532-VI-28an, Valladolidko epaileek auzia amaitzat jo zuten. Joan Beltranen oinordekoen prokuradorea ez zen azaldu (ikus [XVI. m. (32-V) 7] agiria).

- 1532-VI-13an, Zestoan, Domingo Lizarrats aitak, Zestoako Kontzejuko fiel eta sindiko izanik, ahalordea eman zien Valladolidko Kantzelaritzako Joan Lopez Arrietakoa, Joan Lazkano eta beste bi



2.2. irudia. Iraetako Olatxo.

prokuradoreri. Zestoako Kontzejuak auzia zuen Fernando Olazabal medikuarekin, honek herri-lurretan intxaurrondoak aldatu zituelako eta alkateak kenarazi egin zituelako. Prokuradoreek Zestoako Kontzejua ordezkatu zuten auzian.

Ahalorde-agirian lekuko hauek izan ziren: Joan Ereño, Migel Etxegarai eta Joango Ezenarro (ikus [XVI. m. (32-VI) 4] agiria).

- 1532-VI-16an, Zestoako Enekosauztegin, Kontzejua bildu zen aurrean Blas Artazubiaga eskribaua zelaririk. Bertan ziren honako hauek: Martin Perez Artzubiagakoa alkatea, Domingo Lizarrarats fiela, Joan Bengoetxea eta Joan Akoa zinegotziak, Martin Itziar probestuordea (enperadorearen etxeko Alonso Idiakaitzen izenean), Martin Fernandez Edarritzagakoa, Esteban Artazubiaga, Pedro Etxeberria, Pedro Martinez Baltzolakoa, Sebastian Artazubiaga, Joan Arretxe (Akoakoa), San Joan Egaña, Martin Zulaika, Joan Igartza, Domingo Ezenarro, Lope Ernataritz, Joan Arregi-Zabala, Martin Izarraga, Migel Etxegarai, Joango Amilibia, Esteban Eztiola eskribaua, Joan Martinez Erretzabalgoa, Domingo Arizmendi, Martin Arano (Aizarnakoa), Martin Sastarrain, Martin Arano (Zestoakoa), Joan Zuube "Arotzarte", Martin Gorosarri-Garro, Domingo Olazabalegi eta beste zenbait herritar.

Auzia zuten Zestoako Fernando Olazabalekin, honek Gallari aldean herri-lurretan intxaurrondoak aldatu zituelako eta alkateak kenarazi egin zituelako. Ahalordea eman zieten Esteban Eztiola eskribauari, Gipuzkoako korrejimenduko bost prokuradoreri eta Valladolidko Kantzelaritzako beste bosti Kontzejua- ren ordezkari izan zitezen. Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Urbietta, Joan Ezenarro eta Martin Gorosarri.

Jarraian Bartolome Txiribogak alkateari hau jakinarazi zion: zuhaitzak herri-lurretan aldatutako gehiago ere bazirela, eta haiei ere kargu har ziezaiera. Alkatea prest agertu zen besteei ere okerra zuzenarazteko. Hala ere, batzuek adierazi zuten, haiek ez zuten Fernando Olazabali auzian aurka egiteko ahalorderik eman nahi. Hauek ziren uko egiten zutenak: Martin Indo, Domingo Aranguren, Pedro Ausoroetxea, Joan Apategi eta Domingo Aldalur (ikus [XVI. m. (32-VI) 9] agiria).

- 1532-V-17an, Zestoako Urbietan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek zeuden: batetik, Martin Perez Artzubiagakoa alkatea, eta bestetik, Katalina Altzolarats alarguna eta ama Maria Urbietta. Katalina horma eraikitzen hasi zen Urbietan, eta zegoen norabidean jarraituta herri-lurrei kalte egingo

zien. Beraz, mugarriak ipini eta horma beheragotik eraikiko zuten, bidea libre utzita Ondaldeko etxearen lurretaraino. Lekuko Esteban Eztiola, Sebastian Artazubiaga eta Zumaiako biztanle Migel Agirre bikarioa izan ziren (ikus [XVI. m. (32-VI) 12] agiria).

- 1532-VI-28an, Zestoako Zelaitxikietan, Gallari ondoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: batetik, Zestoako alkate Martin Perez Artzubiagakoa eta Kontzejuko fiel eta sindiko Domingo Lizarrarats aita, eta, bestetik, Fernando Olazabal medikua. Bi aldeak auzitan zebiltzan Fernandok herri-lurretan (Fernandoren sagasti ondoan) intxaurrondoak aldatu zituelako eta alkateak kenarazi egin zituelako.

Probintziako korrejidoreordeak epaia eman zuen Fernando Olazabalen alde, baina Kontzejuak Kantzelaritzara gora jo zuen. Orduan bi aldeek auziari uko egin eta Zelaitxikietan mugarriak ipinita, bakoitzaren lurak bereiztu egin zituzten.

Zelaitxikietako mendi eta harizti aldera, Fernandoren sagastiaren hesiko izkinan, mugarri bat ipini zuten, Azpeitira zihoan galtzada eta sagastiaren artean; beste bat ere bai Izarriztik jaisten den errekaostoen ondoan. Mugarrien eta hesien barruan zegoena Fernando Ola-

zabalentzat izango zen, eta kanpora geratu zena, galtzadaren azpikoa eta irlatxoa Kontzejuarentzat.

Bi aldeek auzia bertan behera utzi zuten, eta ordu-ra arte egindako auzi-gastuak alde bakoitzak bereak ordainduko zituen. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Martinez Lilikoa apaiza, Esteban Aisoro bikarioa, Jakobo Ipintza (semea) eta Domingo Aspe (ikus [XVI. m. (32-VI) 15] agiria).

- 1532-VIII-6an, Arroaerrekako Zubeltzuko dorrean, Blas Artazubiaga eskribauarekin Joan Lopez Sasiolakoa batxilerra (Debako eta Zumaiako auzotarra) zegoen. Zestoako Kontzejua 1514. urteaz gero urtero zorra ordaintzen hasi zen Joan Lopezen guraso Jofre Sasiola batxilerrari eta Maria Lopez amari. Azkenaldian Joan Lopez batxilerrari ordaindu zion 1531. urtera arte, baina egun hartan zorra kitaturik geratu zen. Joan Lopezek Kontzejuari ordainagiria eman zion.

Lekuko hauek izan ziren: Debako Joan Zuube eta Beltran Zubeltzu, eta Zestoako Esteban Eztiola (ikus [XVI. m. (32-VIII) 1] agiria).

- 1532-VIII-10ean, Zestoako udaletxean Kontzejuak bildu zen, Blas Artazubiaga eskribaua bertan ze-

2.3. irudia. Lasaoko Zelaitxikieta.



larik. Ahalordea eman zieten Domingo Zabalarri eta Domingo Lizarrarats fieleri, hurrengo astelehenean, hilak 12, Azkoitiko Basarten Gipuzkoako Probintziak egingo zituen Batzar Bereziatan prokuradore izan zitezten. Ahalorde-agirian lekuko hauek izan ziren: Lope Ernataritz, Joan Zubiaurre eta Pedro Olazabal.

Biharamunean, hilaren 11n, berriz bildu zen Zestoako Kontzejua udaletxean, lekuko berak aurrean zirela. Blas Artazubiagarekin hauek elkartu ziren: Esteban Artazubiaga alkateordea, Domingo Lizarrarats fiela, Joan Akoa zinegotzia, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, Joan Martinez Amilibikoa, Joan Martinez Akoa "Olajauna", Fernando Olazabal medikua, Lope Ernataritz, Martin Fernandez Edarritzagakoa, Martin Ibañez Zubiaurrekoa, Pedro Egaña, Joan Zubiaurre, Joango Zelaia-Intzina, Joan Igartza eta beste zenbait.

Errege-kontulariek dei egin zioten Kontzejuari 1514. urteaz gero 1531. urtera arte ordaindutako alkabalen kontuak egin zitzaten. Kontzejuak ahalordea eman zien erregearen gortean zegoen Frantzisko Zumetari eta Zestoako Esteban Eztiola eskribauari, gai hartan ordezkari izan zitezten (ikus [XVI. m. (32-VIII) 10] agiria).

2.1.3. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren tratu eta agiriak

- 1532-I-4an, Zestoako Lilin, bertako Domenja andrea eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa seme zaharrena zeuden Blas Artazubiaga eskribauarekin. Burgosko hirian Joan Perezek urtero 60.000 marai jasotzen zituen Domenja Lili amarentzat. 1531. urteari zegozkion 154 dukat hiru alditan (50+50+54 dukat) ordaindu zizkion Joan Perezek, eta amak ordainagiria eman zion semeari.

Lekuko Joan Borda fraidea (Arantzazun zegoen hondarribitarra) eta Joan Arbestain (edo "Joan Akoa") eta Joan Berastegi errementariak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-I) 8] agiria).

- 1532-I-5ean, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauaren bidez Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak ahalordea eman zion Burgosko Joan Ortega de Curiel jaunari.

Joan Perezek, errege-pribilegioaz eta ama Domenja Liliren dohaintzaz, eskubidea zuen Burgosko hiritik urtero 60.000 marai jasotzeko. Hain zuzen 1532. urteari zegozkion 60.000 maraiak hiriari kobratzeko ahalordea eman zion Joan Perezek Joan Ortigari.

Jarraian, Joan Perezek beste ahalorde bat eman zien Jakobo Ipintzari, San Joan Arretxeri eta Martin Esteban Makatzaga zestoarrei, Burgosen Joan Ortega de Curiel jaunari aurreko urteetako maraietatik jasotzeko geratu zirenak Joan Perezentzat kobra ziezazkieten. Lekuko Migel Artazubiaga, Domingo Lizarrarats eta Domingo Artazubiaga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-I) 9] agiria).

- 1532-I-19an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa azaldu zen. Joan Perezek zioenez, Antonio Martinez Araizkoak errekerimendua egin zion Antonio Santa Cruz eskribauaren bidez. Antonio Martinezek zioenez, Liliko burdinolan landutako burdinengatik alkabala eta hamarren zaharra kobratzeko eskubidea zuen, errege-pribilegioaren bidez.

Joan Perezek ukatu egiten zion eskubide hori, eta bere erantzuna emateko Antonio Santa Cruz eskribaua ez zuen aurkitu. Horregatik erantzuna Zestoako alkateari eman zion. Horrez gain, Zestoako Domingo Zabalarri, San Joan Arretxeri eta Joan Artsuagari ahalordea eman zien Antonio Santa Cruz eskribaua aurkitzeko eta erantzuna emateko. Lekuko Domingo Artazubiaga, Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Domingo Ezenarro izan ziren (ikus [XVI. m. (32-I) 17] agiria).

- 1532-V-2an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta ama Domenja Lili elkartu ziren. Joan Perez semeak amari 50 dukat eman zizkion, Burgosen errege-pribilegioaz 1532. urteari zegozkion eta kobratzeko zeuzkan 60.000 maraien kontura. Domenja amak ordainagiria eman zion semeari, aurrean Zestoako lekuko hauek zeudela: Joan Perez Arretzekoa, Joan Akoa eta Joan Berastegi (ikus [XVI. m. (32-V) 3] agiria).

- 1532-V-1ean, Zestoan, Zarauzko erroldako Joan Martinez Amilibikoa eskribauak ahalorde-agiria idatzi zuen Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren eskariz. Joan Perez Zestoako partean zegoen Bedamako burdinola, baserri eta lurren jabe zen, eta 9 milakorena zegokion ordaintzea, ondasun haiengatik zerga gisa, Zestoako Kontzejuari.

Bi urte lehenago, Zestoako Kontzejua 9 milakorena baino zati handiagoa kobratzen saiatu zen (ikus *III ZESTOA XVI. MENDEAN (1521-1530)* liburuko [XVI. m. (29-VI) 3] agiria).

1532. urtean ere, 9 milakori zegokiena baino gehiago kobratu nahi zien Kontzejuak Joan Perezi eta honen Bedamako maizter Martin Ramus? Agirrebasoari. Gai hartan Joan Perezen prokuradore izan zitezten, ahalordea honako hauei eman zien: Joan Artsuaga morroiari, San Joan Arretxeri, Domingo Legoiagari, Martin Ramusi?, Gipuzkoako korrejimenduko Joan Martinez Untzetakoari eta beste sei prokuradoreri, eta Valladolidko Kantzelaritzako Joan Lopez Arrietakoari eta beste hiru prokuradoreri.

Prokuradoreek Zestoako Kontzejuko Joan Bengoetxea zinegotziari 9 milakori zegokiona ($9 \times 3 = 27$ txanpon) ordaindu ahal izango zioten guztira. Bestela pertsonaren baten esku utziko zituzten diru haiek eta auzitara jo ahal izango zuten. Lekuko Joan Perez Arretzekoa, San Joan Arretxe eta Joan Zuube zestoarrak izan ziren.

Jarraian Martin Ramus? Agirrebasoak, Bedamako burdinolako maizterrak, bat egin zuen Joan Perez nagusiak emandako ahalorde-agiriaz.

Egun hartan bertan, Aizarnako plazan, Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren aurrean Martin Ramus? Agirrebasa maizterra eta Joan Bengoetxea zinegotzia elkartu ziren. Bedamako burdinola eta ondasunen zergengatik Martinek Joani 27 txanpon eskaini zizkion ($9 \text{ milako} \times 3 \text{ txanpon}$). Haiek hartzen bazituen eta besterik eskatzen ez bazion, ez ziren auzitara joango. Bestela, handik sor zitezkeen zauri, heriotza eta



2.4. irudia. Burgosko katedrala

kalteen arduradun izango zen. Joan Bengoetxeak diru haiek jaso egin zituen (ikus [XV. m. (32-V) 1] agiria).

- 1532-V-5ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek aurkeztu ziren: batetik, Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, Martin Perez Artzubiagakoa, Domingo Lizarrarats eta Pedro Martinez Baltzolakoa, eta, bestetik, Albizturko Gregorio Aitzalde eta Azpeitiko Joan Orgogozo eta Martin Orgogozo. Bi azpeitiarrak Gregorio Aitzalderen fidatzaile ziren.

Zestoarrek Gregoriori guztira 12 dukat maileguz eman zizkieten, eta albizturtarrak zorra hurrengo inauterietarako ordainduko zien. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Zabala, Joan Perez Arretzekoa eta Lope Ernataritz (ikus [XVI. m. (32-V) 6] agiria).



2.5. irudia. Debako udaletxea.

- 1532-V-29an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek bildu ziren: batetik Debako Kontzejuko alkate Antonio Arezti batxilerra, Joan Gartzia Likonakoa fiela eta Domingo Antsorregi, eta, bestetik, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa. Joan Perezek beste hirurei 100 dukat maileguz eman zizkien. Hiru debarrek obligazio-agiria eman zioten zestoarrari, Debako Joan Martinez Gorozikakoa eskribau fiela bi egun lehenago egindakoa, zeinak 150 dukateko kopurua aipatzen baitzuen. Dena dela, 100 dukaterainoko indarra izango zuen agiri hark, eta zorra hurengo Santiago egunean ordainduko zioten.

Blas Artazubiagak egindako agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Lope Ernataritz, Domingo Ezenarro eta Joan Arbestain (edo “Joan Akoa” goitzenekoa) (ikus [XVI. m. (32-V) 13] agiria).

- 1532-VI-10ean, Zestoako errebaletan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Arano eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa azaldu ziren. Joanek Joan Perezari 2 dukat maileguz hartu zizkion, eta zorra hurrengo Eguberri egunerako ordainduko zion. Agirian lekukoetako bat Joan Otxoa Artazubiagakoa apaiza izan zen (ikus [XVI. m. (32-VI) 3] agiria).

- 1532-VII-5ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hiru hauek bildu ziren: Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa merkataria, Jakobo Ipintza eskribaua eta Getariako Arrona lizentziatu eta medikua. Lilikoak beste biei ahalordea eman zien urte hartan Valladolidko Medina del Campon ospatzen ari zen “maiatzeko feria” deitzen zenean haren truke-letrak eta zorrak kobratu zituzten. Joan Perezen izenean Valentzian eta beste edonon egindako truke-letrak, zedulak eta zorrak kobratuko zituzten zestoarrarentzat. Letrak protestatu, trukatu eta birtrukatzeko ahalmena zuten, eta zordunak auzitara eramateko ere bai.

Ahalorde-agirian lekukoak, besteak beste, Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Migel Artazubiaga izan ziren (ikus [XVI. m. (32-VII) 2] agiria).

- 1532-VII-19an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek bildu ziren: Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, eta Debako Joan Hernani eta emazte Madalena Espilla. Lehenago, Debako Sebastian Arriola eskribauaren aurrean, Joan Guadalupe ontzi-maisak 22 dukateko zorra egin zion Madalena Espillari. Egun hartan, ordea, Joan Perez zestoarrak zor haren zati bat (12 dukat) ordaindu zien Joan Hernaniri eta Madalenari. Ondorioz, senar-emazteek ahalordea eman zioten zestoarrari Joan Guadaluperi 12 dukat haiek kobratzeko eskubidea izan zezan.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Arretzekoa, Martin Legarda eta Esteban Artazubiaga (ikus [XVI. m. (32-VII) 6] agiria).

- 1532-VII-20an, Zestoako Lilin, bertako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Debako Domingo Ruiz Goikoleakoa azaldu ziren Blas Artazubiaga eskri-

2.6. irudia. Arroako Arbeazpikoa.



bauaren aurrean. Lehenago Domingok Joan Perezi bi zor egin zizkion: bata 50 dukatekoa Joan Martinez Ibañetakoa eskribauaren aurrean, eta bestea 12 dukatekoa Sebastian Arriola eskribauaren aurrean. Bi zor haiek guztira 72 dukat ziren, eta Domingok hurrengo Eguberri egunerako ordainduko zizkion.

Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Lope Ernataritz, Joan Zubiaurre eta Kristobal Erretzabal (ikus [XVI. m. (32-VII) 7] agiria).

- 1532-VIII-9an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak ahalordea eman zien Zestoako Domingo Zabalari, Joan Errezustari eta San Joan Arretxeri. Bizkaiko konderriko Ondarroan bizi zen Joan Oleak lehenago 120 dukateko zorra egin zion Joan Perezi, eta zor hura kobratzen saiatuko ziren hiru zestoarrak. Joan Olea auzitara eraman eta haren ondasunak exekutatzeko ahalmena zuten.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Igartza, Domingo Lizarrarats eta Kristobal Erretzabal (ikus [XVI. m. (32-VIII) 2] agiria).

- 1532-IX-20an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domenja Lili eta honen seme Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak agertu ziren. Joan Perez-

ek amari 50 dukat eman zizkion, Burgosen 1532. urtean jasotzeko zeuzkan 60.000 maraien zati gisa. Lehenago beste 50 dukat ere ordaindu zizkion semeak, eta Domenjak guztira 100 dukaten ordainagiria eman zion (ikus [XVI. m. (32-IX) 10] agiria).

- 1532-XI-22an, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak eta Arroako Esteban Arbe bildu ziren. Estebanek Joan Perezi 6 dukateko zorra ordaindu egin zion, eta Joan Perezek ordainagiria eman zion. Bestalde, Estebanek orduan Joan Perezi 2 dukat maileguz hartu zizkion, eta obligazio-agiria ere eman zion, ordaintzeko konpromisoa hartuz. Lekuko Zestoako Migel Artazubiaga eta Debako Martin Ermua eta Domingo Areitzaga izan ziren (ikus [XVI. m. (32-XI) 4] agiria).

2.1.4. Domenja Liliren eta Maria Perez Idiakaitz-Lilikoaren agiriak

- 1532-I-14an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domingo Aranburu, Maria Aranburu emaztea eta Maria Perez Aranburukoa amaginarreba aurkeztu ziren. Zestoako Domenja Lilik 6,5 dukat maileguz eman zizkien, eta hirurek zorra hurrengo Santiago egunerako ordainduko zioten. Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Ar-

tzuriaga probestuordea, Joan Amilibia hargina eta San Joan Amilibia semea (ikus [XVI. m. (32-I) 14] agiria).

- 1532-III-9an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin Domenja Lili elkartu zen. Domenjak zorra zeukan kobratzeko Valladolidko Villalon herriko "garizumako ferian", eta zordunak hauek ziren: Toledoko Teresa de la Higuera (Alonso de la Torreren alarguna), Joan de la Torre semea eta Granadako zeta-aren zerga-biltzailea (ikus [XVI. m. (31-III) 16] agiria).

Domenjak ahalordea eman zien Zestoako Martin Esteban Makatzagari eta Valladolidko Nicolao Bechariniri 200 dukateko zorraren azken herena kobrazaten. Zorraren zehaztasunak Toledon Pedro Villaverde eskribauak 1529-III-2an egindako agirian zeuden. Lehen herena Domingo Agirre zestoarrak jasozuen Domenjarentzat, eta bigarren herena Martin Esteban Makatzagak 1531. urtean.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa (Domenjaren seme zaharrena), Joan Akoa eta Mateo Urbietta (ikus [XVI. m. (32-III) 1] agiria).

- 1532-IV-2an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Ondalde eta Domenja Lili aurkeztu ziren. Domenja, hain zuzen, seme San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa batxilerraren izenean zegoen. Martin Ondaldek Altzolarats jauregiko burdinola batxilerrari errentan hartuta zeukan, eta errenta ordaindu zion Domenjari seme San Joan Perez nagusiarentzat.

Burdinolaren 1531. urteko errentagatik 40 kintal burdina ordaindu zizkion, eta urte berean Martinek hartu zituen Altzolarats jauregiko basoengatik 18 dukat ordaindu zituen. Martin Ondaldek burdinolan ingude berria ipini zuen, eta, kontratuaren arabera, 40 kintaleko errentatik 10 kintal deskontatu egin zituen. 1532. urteko errenta ere, hurrengo ekaineko San Joan eguna artekoa, ordaindu zion Martinek Domenjari (40 kintal burdina). Hurrengo San Joan egunean basoengatik 1532. urtean zegokiona (beste 18 dukat) ordainduko zion Martinek.

Lekuko Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa (Domenjaren seme zaharrena), honen morroi Martin Arano eta Domingo Aspe zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-IV) 5] agiria).

- 1532-VII-1ean, Aizarnako Iribarrenan, Zarauzko erroldako Joan Martinez Amilibikoa eskribau zestoarrarekin hauek bildu ziren: batetik Pedro Iribarrena eta emazte Katalina Gorostiaga, eta, bestetik, Maria Perez Idiakaitz-Lilikoa (Joan Beltran Iraetaren alarguna). Senar-emazteek Maria Perez andreari Aizarnako Iribarrena baserria saldu zioten, bere Aizarnako elizako hilobi, lur, soro, baratze, sagasti, belardi eta zuhaitz guztiekin. Prezioa 210 dukat eta 200 maraikoa zen.

Pedrok eta Katalinak baserria salgai ipini zuten, eta gehien eskaini ziena Iraetako Maria Perez andrea izan zen. Pedrok eta Katalinak aipatutako prezioa Iraetako etxetik lehendik kobratuta zeukaten. Maria Lopez Iraetakoak, Martin Perez Iribarrengoarekin (Pedroren aitarekin) ezkondu zenean, mila florin arrunt eramane zituen dote gisa. Ezkontza hura, ordea, seme-alabarik izan gabe hautsi zen, eta 371 florin itzuli zitzaizkion Iraetako Maria Otxoa Likonakoa andreari, oinordeko zelako (7,5 florin = 1 dukat). 629 florin itzuli gabe zeuden, eta Iribarrena baserria hipotekatuta zegoen.

Bestalde, Maria Perezen senar Joan Beltran Iraeta zenak, 42 dukat eman zizkion maileguz Pedrori. Maria Perezek Katalina Gorostiagari beste 120 florin ere maileguz emanak zeuzkan. Diru haiek guztira 210 dukat eta 200 marai ziren.

Iribarrena baserria horrela salduta, Pedrok eta Katalinak bermeak eman zituzten ondasun haien saneamendua bere gain hartuta. Katalina Gorostiagak zin egin zuen salmenta-agiriak zioenari ez ziola aurka egingo. Lekuko hauek izan ziren: Fortun Santxez Iraetakoa (Gipuzkoako artzapeza), Joan Majado Pozakoa (artzapezaren morroia), Joan Lopez Idoiakakoa eskribau bidaniarra, eta Debako Fernando Igartza eta Joan Igartza semea.

2.7. irudia. Aizarnako Iribarrena.



Jarraian, eskribau eta leuko berak aurrean zirela, Pedrok eta Katalinak Maria Perez andrea Iribarrena baserrira sartu zuten. Han ibili zen Iraetako andrea, eta jabe zela adieraztearren, atek itxi eta ireki egin zituen (ikus [XVI. m. (32-VII) 1] agiria).

- 1532-VII-29an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin Domenja Lili zegoen, Joan Perez Idiakaizkoaren alarguna. Senar zenaren eta bere seme-alaben izenean jardunez, ahalordea eman zien Zestoako Martin Artzuriagari, Gipuzkoako korrejimenduko Joan Martinez Untzetakoari eta beste hiru prokuradoreri eta Valladolidko Kantzelaritzako Joan Lopez Arrietakoari eta beste lau prokuradoreri. Domenjak eta seme-alabek auzia zuten Antso Martinez Leibakoa kapitainarekin, hark 250 dukat zor zizkielako. Domenjak bahituran Antsoaren zilarrezko erretilua zeukan.

Ordura arte Domenjaren prokuradoreek egindakoa ontzat emanez, auzian ordezkatzeko aipatutako ahalordea eman zien. Lekuko Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa semea, Joan Zubiaurre eta Sebastian Ezenarro zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-VII) 14] agiria).

- 1532-IX-20an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauak Bedamako Linatzetabekoa baserria errentan emateko kontratua idatzi zuen. Domenja Lili zen jabea,

eta Migel Gorriaran (Migel Gorriaranen semea) maizterra. Bost urterako errenta aldia izango zen, hurrengo San Migel egunetik hasita. Baserria bere soro, belardi eta gain-erakoarekin eman zion nagusiak, baldintza batzuekin.

Maizterrak Domenjari urtero jasotako gari, garagar, artatxiki, zekale, olo, baba eta lihoaren laurdena emango zion. Sagastietako sagarraren erdia ere urtero piloa eginda utziko zion Migelek Domenjari. Gaztaina eta intxaurra hurrengo hiru urteetan dena maizterrentzat izango zen, fruta-arbolak gazteak zirelako. Handik aurrera erdia Domenjarentzat izango zen.

Baserriak bere lurretan zituen zuhaitzetatik bat bera ere ez zuen ukituko maizterrak Domenjaren baimenik gabe. Sagarrondoak urtean bitan aitzurtuko zituen, eta bi urtetik behin simaurtu egingo zituen.

Baserrian erdi bana haziko zituen Migelek behiak, ardiak, ahuntzak eta txerriak. Urtero emango zion maizterrak nagusiarri ganaduen egoeraren berri. Ganaduren bat ustekabeen hiltzen bazen, maizterrak seinalaren bat erakutsi beharko zion. Ganadua kentzeko maizterrak Domenjaren baimena beharko zuen.

Linatzetabekoa baserrian Domenjak ganadu hauek zeuzkan: 2 behi ernari zekor banarekin, behi zaha-

rra bere txahal urrixarekin, bi biga, uztarriko idi pare (denak 41 dukat balio zuen), beste behi bat bere txahalarekin eta biga bat (9 dukat balio zutenak), eta beste behi bat bere txahalarekin (5,5 dukatekoa), eta 4 dukateko beste idi bat. Guztira 60 dukat balio zuten. Migel maizterrak behia txahalarekin eta idi bat ipini zituen (14 dukat guztira).

Ganaduak erdi bana egiteko Migelek Domenjari 23 dukat zor zizkion. Baserrian, gainera, 29 ardi handi, 6 arkume, eta 19 ahuntz zeuden. 4 dukat eta 45,5 txanpon zor zizkion Migelek Domenjari bere erdiagatik.

Txerriak alde batera utzita, gainerako ganadu guztiagatik Migelek 27 dukat eta 45,5 txanpon zor zizkion Domenjari.

Errenta aldia amaitzen zenean Migelek soroak garbi eta ongi hesituta utziko zituen. Baserriari zegozkion zergak Migelek ordainduko zituen osorik.

Errentamendu-kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Otaegi, Joan Artsuaga eta Joan Pagino (ikus [XVI. m. (32-IX) 11] agiria).

2.1.5. Sebastian Artazubiagaren agiri eta tratuak

- 1532-I-21ean, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zarauzko Joan Perez Etxebestekoa, Pedro Etxebeste anaia eta Zestoako Sebastian Artazubiaga bildu ziren. Sebastianek Aiako Izetagoikoa baserriaren mendiak hartuta zeuzkan, eta Joan Perezek eta Pedro anaiak han 500 karga ikatz egingo zizkionten hurrengo Eguberri egunerako. Ikatzak txondorretik kanpo utziko zizkionten, eta karga bakoitzeko 2,5 txanpon kobratuko zituzten.

Lanak hasterako Sebastianek 8 dukat eman zizkien, eta gero, haien balioko ikatzak egin ahala, beste 8 emango zizkien, eta horrela jarraian 500 karga osatu arte. Obligazio-agirian lekuko Martin Artzuriaga, Joan Igartza eta Pedro Ausoroetxea izan ziren (ikus [XVI. m. (32-I) 18] agiria).

- 1532-II-2an, Aizarnan, Zestoako Sebastian Artazubiaga Aiako Martin Arriate eta Joan Arriate anaiekin azaldu zen Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Pago-egurrarekin bi anaiek 100 karga ikatz egingo zizkionten Sebastiani hurrengo Pazko garizumakorako Pagoetako Arriate baserriaren ondoan. Karga bakoitza 14 kanako zakukoa izango zen, eta Gaztelako erreal bat balioko zuen. Sebastianek ikatz haien balioa dobloitan aurrez ordaindu zien.

Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Migel Artazubiaga, Domingo Aranburu eta Joan Elurra (ikus [XVI. m. (32-II) 1] agiria).

Jarraian, Sebastian Artazubiaga eta Aiako San Joan Mandiolatza aurkeztu ziren Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. San Joan aiarrak Sebastiani 100 karga ikatz egingo zizkion pago-egurrarekin, Pagoetako Arriate baserriaren ondoan, hurrengo Pazko garizumakorako. Karga bakoitzagatik Sebastianek aurrez Gaztelako erreal bat ordaindu zion aiarrari.

Jarraian Sebastianek eta San Joane elkarren artean izandako tratuen kontuak egin zituzten, eta, 100 karga ikatz haiek izan ezean, gainerako zorrak kitaturik geratu ziren. Lekuko Migel Artazubiaga, Domingo Aranguren eta Joan Elurra zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-II) 2] agiria).

Ondoren, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Sebastian Artazubiaga eta Aiako Joan Otaegi bildu ziren. Joane Sebastiani, hurrengo Pazko garizumakorako, 50 karga ikatz egingo zizkion Pagoetan, Azti baserriaren inguruan. Sebastianek ikatzen balioa aurrez ordaindu zion Joani. Lekuko Migel Artazubiaga, Joan Ereño eta Joan Zulaika "Beltza" zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-II) 4] agiria).

- 1532-II-3an, Aizarnan, Joan Arregi-Zabala, emazte Maria Joanes Zabala eta Sebastian Artazubiaga zeuden Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Maria Joanesek zioenez, 1531-VIII-21ean Joan senarrak behi-aziendako 9 buru saldu zizkion Sebastiani (ikus [XVI. m. (31-VIII) 23] agiria). Maria Joanesek salmenta hura onetsi egin zuen.

2.8. irudia. Pagoeta
Santa Engraziatik.



Jarraian Maria Joanesek zin egin zuen agiriak zioenari aurka ez ziola egingo. Lekuko Martin Zulaika, Domingo Lizarrarats eta Joan Bengoetxea zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-II) 5] agiria).

- 1532-II-9an, Zestean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik Zestoako Martin Ondalde (Altzolarats jauregiko olagizona) eta Sebastian Artazubiaga (Bekolako olagizona), eta, bestetik, Bizkaiko Muskizko Joan de la Pedriza eta Antso Mariaka baxelariak. Bizkaitarrek hurrengo martxoko Andre Mariaren egunerako Beduan lehorreratuta 300 kintal burdin mea emango zizkieten Martin Ondalderi, eta 250 kintal Sebastian Artazubiagari.

Kintal bakoitzaren prezioa 24 maraikoa zen. Martin Ondaldek 18 dukat aurrez ordaindu zizkien, eta gainerakoa kintal guztiak ekarritakoan ordainduko zien. Sebastian Artazubiagak 250 kintalen balio osoa aurrez ordaindu zien.

Burdin mea bere epean ez ekartzeagatik burdin-oletan sortuko ziren kalte guztiak muskiztarrek ordainduko zituzten. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Perez Artzubiagakoa, Joan Arretxe eta Martin Artzuriaga (ikus [XVI. m. (32-II) 9] agiria).

- 1532-II-21ean, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Sebastian Artazubiaga, eta, bestetik, Joan Martinez Olotzagakoa kontularia (Bekolaren jabea). Sebastianek Bekolako burdinola, errota eta basoak errentan hartuta zeuzkan, eta egun hartara arteko kontuak egin zituzten.

Hurrengo ekaineko San Joan egunean ordaindu beharreko errentaren zatia alde batera utzita, Sebastianek Joan Martinezi egindako ordainketak eta kontulariak Bekolako doteagatik Sebastiani emandakoa (baita Esteban Artazubiaga anaiari zegokiona ere) kontuan hartu zuten. Azkenean Sebastianek kontulariari 100 dukat eta 44 txanpon zor zikiola erabaki zuten.

Agirian lekuko Joanes Potzueta, Joan Amilibia hargin-maisua eta Domingo Artazubiaga zestoarra izan zen.

Jarraian, Joan Martinez kontulariak Sebastiani Bekolako burdinola, errota, etxea eta lurra (lehenago bi urterako egin ohi zuten errentamendu-kontratuan zehaztutakoak) errentan eman zizkion. 50 dukat ordainduko zituen Sebastianek urtero, eta Joan Martinezek Bekolako mendietan 560 karga ikatz egiteko egurra emango zion, kargako hiru txanponean.

Gero, Sebastian Artazubiagak Joan Martinez Olotzagakoari ordainagiria eman zion; izan ere, Joan Martinezek Bekolara ezkondu zenean agindutako dotearen zati bat ordaindu zion Sebastian Artazubiagari. 60 dukat Sebastianentzat eta anaia Esteban Artazubiagarentzat ziren, 17 dukat Jofre Ibañez Altzolarasakoarentzat, eta 2 dukat Joanes Ipintza apaizarentzat (ikus [XVI. m. (32-II) 18] agiria).

- 1532-V-2an, Zumaian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, batetik Zestoako Sebastian Artazubiaga, eta, bestetik, Zumaiako Joanes Areitzaga apaiza (Moluketara Joan Sebastian Elkanorekin abiatutakoa) eta Maria Areitzaga arreba bildu ziren. Sebastianek Joanes eta arrebari 100 kintal burdina pletinatan emango zien hurrengo Eguberri egunerako. Burdinak, zerga guztiak ordainduta, Beduako edo Oikiako erreterietan emango zizkien.

Sebastianek aurrez kobratu zuen burdinen balio osoa. Obligazio-agirian lekuko hauek izan ziren: Zumaiako Joanes Mendaro apaiza, eta Zestoako Jakobo Ipintza (semea) eta Migel Artazubiaga (ikus [XVI. m. (32-V) 2] agiria).

- 1532-V-23an, Zestean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Sebastian Artazubiaga eta Aizarna-

zabalgo Martin Intxaurregi aurkeztu ziren. Lehenago, Domingo Intxaurregiri 62 kintaleko zorra kobratzeko eskubidea Martinek Sebastiani eman zion. Domingok ez zuen zorra ordaindu, eta korrejidoareak preso zeukan. Hala ere, Domingo Intxaurregik korrejidoareari jakinarazi zionez, hura aitoren seme zen eta zorragatik ez zuen kartzelan egon behar.

Eskabide hari erantzutera dei egin zien korrejidoareak Sebastiani eta Martini, eta bi hauek ahalordea eman zieten Joan Martinez Untzetakoari, Jeronimo Atxagari eta korrejimenduko beste hiru prokuradoreari, auzian haien ordezkari izan zitezten. Ahalorde-agirian lekukoetako bat Joanes Potzueta apaiza izan zen (ikus [XVI. m. (32-V) 10] agiria).

2.1.6. Domingo Lizarrarats aita-semeen eta Joan Lizarraratsen agiriak

- 1532-I-7an, Zestoako Osinbeltzen, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Txiriboga eta Domingo Lizarrarats elkartu ziren. Domingok Martini 7 kintal burdina pletinaren balioa eman zion maileguz, eta Martinek hurrengo San Joan egunerako Beduako erreterian 7 kintalak utziko zizkion, zerga guztiak ordainduta. Lekuko Zestoako Joan Urbieta eta Pedro Artazubiaga, eta Zumaiako Joan Atristain izan ziren (ikus [XVI. m. (32-I) 12] agiria).



2.9. irudia. Lizarrarats etxea.

- 1532-I-23an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarengana Domingo Lizarrarats eta Arroako Joan Zugasti hurbildu ziren. Joanek Domingori maileguz 7,5 dukat eta 5,5 dukat balio zuen uztarrirako idia hartu zizkion. Guztira 13 dukat ziren, eta hurrengo ekaineko San Joan egunerako ordainduko zuen zorra.

Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: San Joan Arretxe, Matxin Zubiaurre eta Domingo Artazubiaga (ikus [XVI. m. (32-I) 21] agiria).

- 1532-I-25ean, Arroako Areitzagazelaia etxean, Blas Artazubiaga eskribauarekin bertako Katalina Areitzagazelaia eta suhi Joan Lizarrarats elkartu ziren. 1531-V-30a baino egun batzuk lehenago Martin "Zabal" Artzubiaga, Katalinaren eta Maria Lopezen anaia, testamenturik egin gabe hil zen (ikus [XVI. m. (31-V) 18] agiria). Katalinak Martin anaiak utzitako ondasunetan izan zezakeen partea Maria Lopez Indanetakoa alargunari edo beste edonori kobratzeko ahalordea eman zion. Lekuko honako hauek izan ziren: Zestoako Martin Artzuriaga probestuordea, eta Arroako Gabriel Altzolarats eta Sebastian Areitzaga (ikus [XVI. m. (32-I) 22] agiria).

Gai berari jarraipena emanez, 1532-III-23an, Zumaian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Areitzagazelaian bizi zen Joan Lizarrarats zestoarra eta Zumaiako Maria Lopez Artzubiagakoa elkartu ziren. Maria Lopez, hain zuzen, Joan Lizarraratsen emazte Maria Joanes Areitzagaren izeba zen.

Maria Lopezek anaiaren herentzian zegokion zatiaren eskubideak Joan Lizarraratsi eta emazteari eman zizkien, eta Joan Lizarrarats, ordaintan, 10 dukateko lehen ordainketa egin zion egun hartan. Maria Lopezek ordainagiria eman zion. Lekuko Zumaiako Joanes Mendaro apaiza, Joan Migelez Askizukoa eta Martin Akoa izan ziren (ikus [XVI. m. (32-III) 9] agiria).

- 1532-II-18an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Getariako Pedro Ibañez Aldamarkoa eta Zestoako Domingo Lizarrarats bildu ziren. Domin-

gok konpromisoa hartu zuen Pedorentzat Beduako errenterian edo beste errenteria batean 120 kintal burdina mehea uzteko. Zerga guztietatik kanpo egongo ziren burdinak, eta hurrengo maiatzaren amaierarako denak emango zizkion Domingok.

Pedro Ibañezek 150 dukat aurreratu zizkion Domingori Martin Perez Artzubiagakoren bidez, eta kintal-aren prezioa 14 errealekoa zen. Burdina guztia entregatutakoan ordainduko zuen gainerakoa getariarrak. Lekuko Domingo Lizarrarats gaztea (semea), Joan Akoa eta Martin Artzuriaga izan ziren (ikus [XVI. m. (32-II) 13] agiria).

- 1532-II-25ean, Zestoako errebalean, Domingo Lizarrarats semea Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean azaldu zen. Domingoren izenean, aurreko urteko azaroan, Joan Lizarrarats anaiak Joan Mirubiari Aizarnazabalgo Mirubiko olatxo eta bertako basoak erosi zizkion (ikus [XVI. m. (31-XI) 3] agiria). Otsailko egun hartan, hain zuzen Domingo Lizarrarats semeak ahalordea eman zien Domingo Lizarrarats aitari eta Joan Lizarrarats anaiari. Haien kudeatuko zituzten Mirubiko olatxo eta basoak. Domingoren izenean haren zorrak kobratuko zituzten aita eta anaiak, eta auzietan parte hartuko zuten.

Domingo semeak, halaber, ahalordea eman zien Gipuzkoako korrejimenduko Joan Martinez Untzetakoari eta beste bost prokuradoreri; baita Valladolidko Kantzelaritzako Joan Lopez Arrietakoari eta beste lau prokuradoreri ere, Domingo semea auzietan ordezkari zezaten.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Urbietta, Migel Artazubiaga eta Joan Ezenarro (ikus [XVI. m. (32-II) 19] agiria).

Jarraian, leku berean, Domingo Lizarrarats semea eta Maria Zubiaurre Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean azaldu ziren. Maria, hain zuzen, anaia Martin Zubiaurre zenaren oinordekoa zen. Domingo Sevillan zela, Martin Amilibia fraideak Martin Zubiaurre zenaren 7.987 marai eman zizkion Maria arrearentzat.

Mariak Zestoan 5.970 marai jaso zituen, eta beste 2.017 maraiak Domingo Lizarrarats semeak, Martin zenak lehendik zor zizkiolako. Maria Zubiaurrek Domingori ordainagiria eman zion. Lekuko Domingo Urbietta, Martin Artazubiaga eta Joan Ezenarro izan ziren (ikus [XVI. m. (32-II) 20] agiria).

Egun eta leku berean, San Joan Amilibia marine-la eta Domingo Lizarrarats semea elkartu ziren. San Joanek Domingori ahalordea eman zion, haren ize-nean Sevillan 12 dukat inguru kobra zitzan. Sevillan Diego Saez Colchero ontzi-maisuak, Martin Amilibia fraideak, Asentzio Izarragak edo beste zenbaitek eduki zitzakeen San Joanek Sevillan utzitako arropak eta kaxa salduta jasotakoa.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Perez Artzubiagakoa, Migel Artazubiaga eta Domingo Artazubiaga. Nahiz eta agirian zehaztu ez, gure ustez hemen aipatzen dena Domingo Lizarrarats semea zen (eta ez izen bereko aita), Sevillara joatekoa zelako (ikus [XVI. m. (32-II) 22] agiria).

- 1532-III-16an, Ibañarrietan, Zestoako Domingo Lizarrarats aita eta Aizarnazabalgo Joan Mirubia Blas Artazubiaga eskribauarekin bildu ziren. Joanek, hain zuzen, Arroako, Iraetako eta Urbietta bailarako bur-

dinoletatik 120 kintal burdina totxotan jasoko zuen Domingorentzat. Gero, Mirubiko olatxora garraiatu eta burdina mehe bihurtuko zituen. Azkenik, 120 kintal burdina mehe (lerrari zegokiona gehituta) Beduako errenterian emango zizkion hurrengo apirilaren amaierarako Domingori, zerga guztiak ordainduta.

Joan Mirubiak kintal bakoitzagatik aurrez 12 txanpon kobratu zituen, Domingo Lizarrarats aitak ordainduta. Burdina haiek Domingorentzat hipotekatuta geratu ziren, eta Joanen hartzekodunek edo beste edonork ez zuten han parterik izango. Domingo Lizarrarats semea zen Mirubiko olatxoaren jabea, eta haren eskubideei ez zieten kalterik egingo. Lekuko hauek izan ziren: Sebastian Olaberrieta, Joan Lizarrarats eta Domingo Ezenarro (ikus [XVI. m. (32-III) 5] agiria).

- 1532-III-17an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarengana hauek hurbildu ziren: batetik Pedro Egaña, eta, bestetik, Domingo Lizarrarats. Pedrok Domingorentzat itsasontzien saihetsak egiteko 1.000 beso ohol garraiatuko zituen, Antxiturbi ondoko Señarats menditik Beduaraino, hurrengo ekaineko San Joan egunerako. Beso ohol bakoitzagatik 10 sos kobratuko zituen. Oholak Beduan neurtuko ziren. Pedro Egañak aurrez jaso zuen garraio-lanari zegokiona.



2.10. irudia. Zestoako Amilibitxiki.

Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Arretxe, Martin Zubiaurre eta Pedro Gesalaga (ikus [XVI. m. (32-III) 6] agiria).

- 1532-VI-14an, Zestoan, Domingo Lizarrarats aita eta Debako Fernando Sorazabal elkartu ziren Blas Artazubiaga eskribauarekin. Lehenago Zumaiako Joan Etxezarretak eta Fernando Sorazabalek 50 kintal burdinako zorra egin zioten. Bere epean ordaindu ez zutelako, Domingo Lizarraratssek ondasunak exekutatu egin zizkien. Gero, ordea, Fernandok Domingori 50 kintalak eta auzi-gastuak ordaindu egin zizkion. Beraz, Domingok ahalordea eman zion Fernandori zorra Joan Etxezarretari kobra ziezaion.

Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Lizarrarats, Joan Akoa, Domingo Ezenarro eta Pedro Olazabal.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Fernando Sorazabalek obligazio-agiria eman zion Domingo Lizarrarats aitari, maileguz 13 kintal burdina pletinaren balioa hartu ziolako. Epe baten barruan Beduako erreterian utziko zizkion burdinak.

Ondoren, Domingo Lizarrarats aita ordainagiria eman zion Fernando Sorazabali; izan ere, lehenago Esteban Eztiola eskribauaren aurrean Domingo Lizarrarats aitari eta semeari egindako 20 kintal burdinako zorra ordaindu egin zion. Lehentxeago aipatutako 13 kintal burdinak alde batera utzita, Fernandok eta Domingok egun hartara arte elkarrekin egindako tratuen kontuak garbituta geratu ziren (ikus [XVI. m. (32-VI) 5] agiria).

- 1532-IX-2an, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Legarda eta Domingo Lizarrarats azaldu ziren. Domingok Martini 4 dukat maileguz eman zizkion, eta honek hari zorra hurrengo Domu Santu egunean ordainduko zion. Agirian lekuko Joan Arretxe, Joan Zubiaurre eta Martin Gabiria zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-IX) 1] agiria).

- 1532-IX-15an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Debako Fernando Sorazabal eta Zes-

toako Domingo Lizarrarats azaldu ziren. Lehenago Zumaiako Joan Etxezarretak eta Fernando Sorazabalek Domingori 50 kintaleko zorra egin zioten. Domingok beste bien ondasunak exekutatu egin zituen, zorra ordaindu ez ziotelako. Joan Etxezarretaren zordunek aurka egin zioten exekuzio hari, baina Fernandoren ondasunak enkantean saldu egin ziren eta Fernando bera preso egon zen.

Dena den, Domingok 50 kintalak eta auzi-gastuak kobratu egin zituen, eta, ondorioz, Fernandok zorra Joan Etxezarretari kobra ziezaion, Domingok ahalordea eman zion. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Ondalde, Martin Arzuriaga (edo Martin Itziar) eta Joan Ereño (ikus [XVI. m. (32-IX) 7] agiria).

- 1532-IX-19an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Joan Erlete azaldu zen. Konpromisoa hartu zuen Lasako burdinolan bertako andrearentzat eta Domingo Lizarraratsentzat lan egiteko, hasi San Migel egunean eta hurrengo abuztuko Andre Mariaren egunera arte. Burdineriagatik 2 dukat eta ateratako kintal burdina bakoitzeko 8 sos kobratuko zituen. Lekuko Zestoako Fortun Santxex Iraetakoa artzapeza, Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Joan Martinez Lilikoa izan ziren (ikus [XVI. m. (32-IX) 9] agiria).

- 1532-X-14an, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauarekin Joan Otaegi eta Domingo Lizarrarats bildu ziren. Joaneke Domingori mando nabarra saldu zion 10 dukatean. Hain zuzen biek elkarren artean izandako harremanen kontuak egin zituzten, eta 10 dukat zor zizkion Joaneke Domingori. Beraz, zorra kitaturik geratu zen. Lekuko Frantzisko Artiga, Joan Ezenarro eta Domingo Artazubiaga izan ziren (ikus [XVI. m. (32-X) 1] agiria).

2.1.7. Martin Ondalderen, Ana Arretxeren eta Juliana Gebararen agiriak

- 1532-I-14an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Altzolarats jauregiko Ana Arretxe alarguna eta honen seme Domingo Arrona aurkeztu ziren. Anaren senar zenari, Domingo Arrona izenekoari,



2.11. irudia. Altzolarats jauregiaren aurriak.

Martin Perez Kortazarkoak 30 kintal burdinako zorra utzi zion, eta Ana alargunak seme Domingo Arrona gazteari ahalordea eman zion, kintalak Martin Perezi kobra ziezazkion.

Ahalorde-agirian lekuko hauek izan ziren: Joanes Ipintza, Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Anton Altzolarats (ikus [XVI. m. (32-I) 13] agiria).

- 1532-I-23an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Ondalde eta Altzolarats jauregiko Ana Arretxe alarguna elkartu ziren. Martinek Anari lehenago zenbait obligazio-agiri eman zion, dirua maileguz jaso zuelako, eta egun hartan obligazio haietako hiruren dirua ordaindu egin zion Anari. Bi obligazio-agiri Altzolarats jauregiko burdinolaren ardura hartu baino lehen egin zituen Martinek. Bata 15 dukat eta 16 txanponekoa zen, eta bestea 17 edo 18 kintal burdinakoa. Hirugarren obligazio-agiria, 50 dukatekoa, aurreko urtean egina zen, fidatzaile eta guzti.

Hiru obligazio-agiri haiei zegokien ordainagiria eman zion Anak Martini. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Otxoa Martinez Beduakoa, Martin Lapurdi morroia eta Joan Martinez Lilikoa (ikus [XVI. m. (32-I) 19] agiria).

- 1532-IV-1ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Aizarnatea baserriaren jabe Domingo Amas azaldu zen. Domingok Martin Artzuriagari bi dobloi (edo lau dukat) zor zizkion, eta Martinek Altzolarats jauregiko Ana Arretxeri ere kopuru bera zor zion. Beraz, Domingo Amasek zuzenean ordainduko zizkion lau dukat Anari hurrengo San Migel egunerako.

Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Migel Artazubiaga, Martin Perez Artzubiagakoa eta Martin Artzuriaga (edo Martin Itziar) (ikus [XVI. m. (32-IV) 2] agiria).

- 1532-VI-16an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarengana Oiartzungo Joanes Agirre eta Joan Perez Lesakakoa, eta Zestoako Martin Ondalde aurkeztu ziren. Joanesek eta Joan Perezek 1.500 karga ikatz inguru egingo zizkioten Martin Ondalderi hurrengo inauterietarako. Horretarako Martin Ondaldek Altzolarats jauregiko mendiak hartu zizkion Ana Arretxe alargunari. Karga ikatza 14 kanako zakukoa izango zen, eta 50 sos balioko zuen.

Martinek Joan Perezi 9 dukat aurreratu zizkion, eta Joanesi 11 dukat. Gero, ikatza egin ahala ordainduko zien Martinek gainerakoa. Kontratuan lekuko Joanes

Potzueta apaiza, Martin Azkue eta Martin Ezenarro zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-VI) 10] agiria).

- 1532-VII-27an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Altzolarats jauregiko (edo dorreko) Juliana Gebara (edo Juliana Altzolarats) eta alaba Maria Perez Arronakoa (San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa batxilerraren emaztea), eta, bestetik, Joan Amilibia hargin-maisua. Amalabek Joani urte hartan Urdanetako elizan hasikienengatik jasotzea zegokiena 8 dukatean eman zioten. Beste dukat bat ere eman zioten hargin-maisuari, eta honek diru harekin Aizarnako elizan Altzolarats jauregikoentzat kaperatxoa eraikiko zien hurrengo Pazko garizumakorako.

Kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Migel Artazubiaga, Martin Artzuriaga eta Martin Legarda (ikus [XVI. m. (32-VII) 12] agiria).

- 1532-VII-28an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Altzolarats jauregiko Ana Arretxe alarguna, eta, bestetik, Martin Ondalde, Martin Indo eta Pedro Ausoroetxea. Azken hirurek zorra egin zioten Anari (ikus *III ZESTOIA XVI. MENDEAN (1521-1530)* liburuko [XVI. m. (30-IX) 34] agiria). Egun hartan, ordea, 50 dukat eta 20 txanpon ordaindu zizkieten, eta Ana Arretxek ordainagiria eman zien. Lekuko Domingo Artazubiaga, Martin Artzuriaga eta Jofre Altzolarats izan ziren (ikus [XVI. m. (32-VII) 13] agiria).

- 1532-VIII-10ean, Beaingo San Lorenten, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Fernando Sorazabal eta Zestoako Martin Ondalde bildu ziren. Martinek Fernandori 43 dukat eta Gaztelako 7 erreal maileguz eman zizkion, eta Fernandok zorra hil haren amaierarako ordainduko zion. Lekuko Frantzisko Altzolarats, Matxin Indo eta Joan Fernandez Arreitzakoa zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-VIII) 6] agiria).

- 1532-IX-18an, Zestoako errebelean, Blas Artazubiaga eskribauarekin Martin Ondalde eta Joan Pagino

elkartu ziren. Martinek eta Joane elkarrekin izandako harremanen kontuak egin zituzten, eta Joane Martini 6 dukat zor zizkiola atera zen. 6 dukat haiez gain, Joane Aizarnako Aranburuko bidearen auziagatik Martini beste 12 dukat zor zizkion. Joane Martini obligazio-agiria eman zion lekuko hauek aurrean zirela: Migel Artazubiaga, Martin Artzuriaga eta Martin Amilibia zestoarrak (ikus [XVI. m. (32-IX) 8] agiria).

2.1.8. Joan Martinez Olotzagakoa kontularia eta Bekolako auzia

Joan Martinez Olotzagakoa kontularia Zestoako Bekolara ezkondu zenean, dote gisa bertako zorrak ordaintzeko konpromisoa hartu zuen. Hainbat ordainketa eginak zituen, baina hartzaileek auzitara eraman zuten (ikus [XVI. m. (30-V) 5] agiria).

Urte hartan 1532.ean, kontulariak beste zenbait ordainketa egin zituen, eta agirietan bilduta geratu ziren. Martxoaren 11n, Blas Artazubiagaren eskariz Joan Martinez Amilibikoa eskribauak (Zarauzko erroldakoak) agiri originalari kopia atera zion. Agiria eta kopia aztertu zuten lekukoak hauek izan ziren: Domingo Zabala, Joan Martinez Erretzabalgoa eta Joan Olazabal (Fernando Olazabal medikuaren semea).

- 1532-III-13an, Azpeitian, Blas Artazubiaga eskribauak onartu egin zuen Joan Martinez Olotzagakoa kontulariak 38 dukat eman zizkiola. Haietako 32 dukat Joan Otxoa Gorosarikoa zenari zegozkion (Blas haren testamentu-betearazle zen), eta 6 dukat Blas berari zegozkion 1531. urteko San Joan egunera arte. Beste 9 kintal burdina Bekolako etxeak Joan Otxoa zenari zor zizkion, eta Joan Otxoak horren berme gisa Bekolako zilarrezko katilua zeukan bahituran. 9 kintal burdina haiek eskatu zituen Blasek. Sebastian Artazubiaga osabak eman behar zizkion.

- 1532-IV-2an, Joan Martinez kontulariak 30 dukat eman zizkion Joan Ruiz Errekondokoari. Kontularia, hain zuzen, Joan Lopez Altzolaraskoaren koinatua zen, eta Joan Ruiz errezildarra Joan Lopezen zaintzai-



2.12. irudia.
Altzolarasko Bekola.

le eta kudeatzaile, eta kontulariak guztira 150 dukat eman behar zizkion koinatuari seniparteagatik (ikus [XVI. m. (32-III) 4] agiria).

2.1.8.1. Joan Martinez Olotzagakoak lekukoentzat prestaturiko galderak

- 1532-X-30ean, Valladolidko Kantzelaritzatik errege-agindua bidali zioten Antonio Mendiola eskribauari. Kantzelaritzan auzia zuten, batetik, Zestoako Bekolako Joan Lopez Altzolaraskoa adingabeak, eta, bestetik, Azpeitiko Joan Martinez Olotzagakoa kontulariak eta emazte Maria Lopez Altzolaraskoak. Joan Lopez, hain zuzen, Maria Lopezen anaia zen.

Auzia Zestoako Bekolako etxe, burdinola, errota, baserri, mendi, lursail eta gainerako ondasunei buruzkoa zen. Joan Martinez Olotzagakoak lekukoak aurkeztuko zituen, eta Anton Mendiola eskribauak egingo zizkien Joan Martinezek prestaturiko galderak. Urriaren 5etik aurrera 80 eguneko epea zuten horretarako. Errege-aginduak galderen erantzunak nola jaso eta nola idatzi ere zehaztu zuen.

Ondoren Joan Martinez Olotzagakoak Kantzelaritzako Fernando Villafranca eskribauaren agiria erakutsi zion Anton Mendiolari. Gainera, Joan Martinezek Anton Mendiola eskribauari lekukoei egin beharreko

galderak aurkeztu zizkion. Hauek ziren galderak:

- 1) Ea ezagutu zituzten Maria Lopezen gurasoak eta aitona-amonak, eta ea zuten Bekolako etxe, baserri eta bertako gainerako ondasunen berri.
- 2) Ea zekiten Joan Lopez Altzolaraskoa zenak eta bere emazte zenak (Maria Lopezen aitona-amonek) Bekolako etxea, burdinola, errota eta gainerako ondasunak bereak zituztela, legezko seme Pedro Lopez Altzolaraskoa Maria Perez Untzetakoarekin ezkondu zuten arte. Ea zekiten harrezkero Pedro Lopez eta Maria Perez izan zirela ondasun haien jabe.
- 3) Ea zekiten Joan Lopez aitona eta emazteak ondasunak Pedro Lopez semeari eman arren, Jofre Ibañez Altzolaraskoa legezko seme zaharrena ere bazutela, eta artean bizi zela. Ea zekiten ondasunak maiorazkokoak izan balira Pedro Lopez seme gazteak ezingo zituela bereganatu eta Jofre seme zaharrenak (anaiak) ez ziokeela bereganatzen utziko.
- 4) Ea zekiten Pero Lopezek, Bekolako ondasunak bereganatu ondoren, honako hauek saldu zituela: Errezilgo Iruesaroe baserria Esteban Artazubiagari, Getariako Asu baserria Andres Perez Indanetakoa, eta Aizarnako plaza ondoko lursail bat Joan Agirre "Txangilo"ri.

5) Ea zekiten Pedro Lopezek eta Joan Lopez aitak Joan Arteagari 600 dukat zor zizkietela, eta, ondorioz, korrejidorearen aginduz Bekolako ondasun guztiak enkantean saldu zirela. Ea zekiten enkantean Bekolako ondasunak Joan Arteagak bereganatu zituela.

6) Ea zekiten Joan Arteagak Bekolako ondasunak 14 bat urtean eduki zituela, harik eta anaia Joan Ruiz Arrazubikoari eman zizkion arte. Ea zekiten Joan Ruiz anaiak beste urtebetez eduki zituela Bekolako ondasunak, harik eta Martin Ruiz Errekondokoak, Joan Martinez Untzetakoak eta Beltran Untzetak, enkantean Joan Arteagakoak emandakoa eta auzi-gastuak ordaintzea aginduta, Bekolako ondasunak bereganatu zituzten arte. Ea zekiten Bekolako ondasunak hiru haien esku egon zirela Azpeitiko Joan Martinez Olotzagakoa kontularia Maria Lopez Altzolaraskoarekin ezkondu zen arte.

7) Ea zekiten Joan Ruiz Arrazubikoak Martin Ruiz Errekondokoari eta beste biei Bekolako ondasunak eman zizkietenean Bekolako etxea, burdinola, errotak, baserriak, sagastiak, etab. utzita, hutsik eta erorita zeudela, baserriak errentan emateko moduan ez zeudela, errotek ezin zutela eho, burdinola ez zebilela, etab.

8) Ea zekiten Martin Ruiz Errekondokoak eta bere bi lagunek etxea, burdinola, errotak, baserriak, etab. berriz martxan ipini zituztela, horretarako 200 dukat edo gehiago gastatuta.

9) Ea zekiten gero Martin Errekondokoak eta bere bi lagunek Maria Lopez Altzolaraskoa Joan Martinez Olotzagakoa kontulariarekin ezkondu zutela, kontulariak 1.500 dukat ordaintzea agindu zuelako. Ea zekiten kopuru hura egindako zorrak eta gastuak ordaintzeko eta Maria Lopezen anai-arrebei zerbait emateko zela. Ea zekiten orduan kontulariari eta emazteari Bekola bere ondasun guztiekin eman zietela.

10) Ea zekiten Bekola bereganatu zuenean Joan Martinez kontulariak Grazia Lopez Altzolaraskoa

koinatari 150 dukat agindu zizkiola seniparte gisa, eta Graziak zin egin zuela eskubideei uko eginez. Ea zekiten Grazia Pedro Ausoroetxearekin ezkondu zenean Joan Martinez kontulariak 150 dukatak ordaindu egin zizkiola.

11) Ea zekiten Pedro Lopez Altzolaraskoak, hil zenean, 1.000 dukateko zorra utzi zuela, hartzekodunek eskatuta preso egon zela eta preso zegoela hil zela. Esan zezatela lekukoek Pedro Lopezek zer zor zituen.

12) Ea zekiten Joan Martinez kontulariak, Martin Ruizek eta bere bi lagunek, hartzekodunei zorrak ordaintzeko obligazioa hartuta, hauek Bekolako ondasunetan zituzten eskubide guztiak kontulariaren eta emaztearen esku utzi zituztela.

13) Ea zekiten Joan Martinez Olotzagakoak Martin Ruiz Errekondokoari eta gainerako hartzekodunei 1.500 dukat ordaindu zizkiela.

14) Ea zekiten geroztik Joan Martinezek Errotabarrena bere presa, ubide eta abarrekin konpondu egin zuela; halaber Pagaldazuri, Zornotza eta Florentzia etxeak, sagastiak, etab. Ea zekiten horretan 500 dukat gastatu zituela.

15) Ea zekiten Bekolako etxea, burdinola, errotak, etab. konpontzen gastatu izan ez balute ez luketela inolako errentarik jasoko.

16) Ea zekiten aspaldi-aspalditik ondasun horiek guztiak ez zirela maiorazkokoak izan, eta zatitu egin zitezkeela.

17) Ea zekiten ordura arte Bekolako jabe izan zirenek ondasun higiezin batzuk saldu egin zituztela, eta inork ez dituela maiorazkoko ondasuntzat jo.

18) Ea zekiten Joan Lopez Altzolaraskoa aitona hil zenean legezko seme-alaba hauek utzi zituela: Jofre Ibañez Altzolaraskoa, Otxoa eta Joan seme zaharrenak, eta Pedro Lopez eta Maria Joango Altzolaraskoa zena (Martin Ruiz Errekondokoaren



2.13. irudia. Bekolako presa.

ama). Ea zekiten Pedro Lopez Altzolaraskoak Maria Lopez eta Grazia Lopez Altzolaraskoa alabak utzi zituela.

19) Ea zekiten Jofre Ibañezek eta Martin Ruiz Errekondokoak (Maria Joango Altzolarats zenaren oinordeko unibertsalak) Bekolan zituzten eskubide guztiak Joan Martinez Olotzagakoari eta emazteari utzi zizkietela.

20) Ea zekiten Joan Martinez kontulariak Bekolan gastatu zituen 2.000 dukatekin urtean % 10eko (200 dukateko) etekina aterako ziokeela, 7 bat urte lehenago ezkondu zenez geroztik.

21) Ea zekiten Bekola ondoko Altzolarats jauregian, Urbieta etxean eta Gipuzkoako beste hainbat etxetan herenaren eta bostenaren hobekuntza egiten dutela, batzuetan seme zaharrenarentzat eta bestetan seme gaztearentzat (Bekolan bezala), edo batzuetan semeren batentzat eta beste batzuetan alabaren batentzat. Ea zekiten senipartea batzuetan ondasun higiezinetan eta beste batzuetan ondasun higigarrietan ordaintzen zutela.

22) Ea zekiten Joan Lopez Altzolaraskoa adingabeak, zaintzailearen baimenaz, Joan Martinez kon-

tulariak emanda seniparteari uko egiteagatik zegoionaren dukat gehienak jaso zituela.

23) Ea zekiten Bekolako burdinola, errotak eta mendiak konpondu ez balira ez luketela errentarik eta etekinik emango. Ea zekiten konponketarik gabe ondasun guztien errentagatik urtean 20 dukat ere ez liratekeela jasoko.

24) Ea zekiten Bekolaren baserri eta ondasuntan maizterrik ez litzatekeela egongo kontulariak konpondu izan ez balitu eta bertan ganaduak ipini ez balitu. Ea zekiten hori gabe garirik ez luketela jasoko errenta gisa.

25) Ea zekiten Bekolako mendiak txaradi zirela, eta aldian behin moztu egiten zituztela. Ea zekiten ganaduak mendian behar bezala edukitzeko zaintzailea zeukala, eta urtero 20 dukat ordaintzen ziola.

26) Ea zekiten aurreko guztia inguruko jendeak bazekiela.

Joan Martinez Olotzagakoak galdera hauek Anton Mendiola eskribauari ematean lekuko Lope Amilibia eta Tomas Amilibia zestoarrak izan ziren. Jarraian, kontulariak eskribauari Indoko aba-

dea aurkeztu zion lekuko gisa, eta honek zin egin zuen, Lope eta Tomasen aurrean, egia aitortuko zuela. Gero Martin Egaña lekuko gisa aurkeztu eta honek ere zin egin zuen. Lekuko Martin Iribarrena, Tomas Amilibia eta Lope Amilibia izan ziren (ikus [XVI. m. (32-X) 5] agiria).

2.1.8.2. Joan Martinez Olotzagakoaren lekukoen erantzunak

- 1532-X-30ean, Joan Olotzagakoa kontulariaren eta Maria Lopez Altzolaraskoa emaztearen aldeak prestatuturiko galderei lekukoak erantzuten hasi ziren.

- 1. eta 2. galderei honela erantzun zieten lekukoek:

Lehen lekuko Martin Egaña aizarnarra izan zen. Joan Lopez Altzolaraskoa zenak eduki zituen Bekolako ondasunak, eta Martin Egañak urtebetez lan egin zuen morroi gisa gaztetan etxe hartan. Joan Lopez zenak ondasunak Pero Lopez Altzolaraskoa seme gazteari eman zizkion, Getariako Maria Perez Untzetakoarekin ezkondu zenean.

Joan Otxoa Artazubiagakoa, 40 urteko adineko apaizak, zioenez, auziko bi aldeen senide zen. Joan Lopez Altzolaraskoa hil zenean, ondasunak Pero Lopezek eta Maria Perez emazteak bereganatu zituzten. 50 urteko Pedro Iribarrenak 18 urtean ezagutu zituen Joan Lopez zena eta Grazia Sasiola emaztea. Galderei baiezkkoa erantzun zien.

Azpeitiko Ramus Zabalak 50 urte zituen eta antzeko erantzuna eman zuen; baita Aizarnako 62 urteko Fernando Zabalak ere. Pedro Ausoroetxeak 24 urte zituen eta Zestoan alkate zegoen. Maria Lopez Altzolaraskoaren eta Joan Lopez Altzolaraskoa gaztearen senide zen.

60 urteko Martin Zubiaurre zurginak, Akoan bizi zenak, baiezkkoa erantzun zien galderei. Antzera erantzun zien 80 urteko Joan Indo apaizak ere. 67 urteko Martin Olazabal aiarra eta aitagarinreba, Joan Lopez Altzolaraskoa zenaren eta Grazia Sasiolaren maizter izan ziren Errezilgo Iruesaroe baserrian. Gero, nagu-

si beraien maizter Zestoako Errotabarrenan izan zen Martin Olazabal. Baietz erantzun zien galderei.

Beltran Untzeta getariarak 40 urte zituen, eta auzitan zebiltzan bi aldeak senide zituen. Joan Ortiz Untzetakoa aitak esanda zekien Beltranek galderek ziotena egia zela. Maria Perez Untzetakoa zena arreba zuen. Martin Ruiz Errekondokoa errezildarra bi aldeen senide zen, eta Joan Lopez Altzolaraskoa adingabearen zaintzaile ere bai. Martin Ruizen ama Grazia Sasiola eta Joan Lopez Altzolaraskoa zenen alaba zen. Galderei baiezkkoa erantzun zien.

Joan Martinez Untzetakoa getariarrak ere berdin erantzun zuen. 56 urte zituen eta Maria Perez Untzetakoa zena arreba zuen. Zestoako Blas Artazubiaga eskribauak ere antzeko erantzuna eman zuen. 44 urte zituen orduan. Joan Lopez Altzolaraskoaren eta Mari Lopez Altzolaraskoaren osaba zen. Zestoako Domingo Amilibiaren agiri bat aipatu zuen Blasek.

Joan Martinez Akoakoak? 60 urte zituen, eta gaztetan Bekolara joaten zen egurra burdinolara eramatera. Galderei baiezkkoa eman zien; baita 67 urteko Martin Fernandez Edarritzagakoak ere. Esteban Artazubiaga zestoarrak hitz egin zuen ondoren. 73 urte inguru zituen. Joan Lopez Altzolaraskoa zena Estebanen amaren anaia zen, eta galderek ziotenarekin ados zegoen. Joan Lopez Altzolaraskoa eta Maria Lopez Altzolaraskoa lehengusu txiki zituen. Ontzat eman zuen lehen bi galderek ziotena. Gauza bera egin zuen Sebastian Artazubiagak, Estebanen 62 urteko anaiak.

- 3. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Joan Otxoa Artazubiagakoa apaizak zioenez, Joan Lopez Altzolaraskoa eta Grazia Sasiola zenen seme zaharrena Jofre Ibañez Altzolaraskoa zen, artean bizi zena. Gauza bera zioen Pedro Iribarrenak ere. Gainera, Pedoren iritiz Bekolako ondasunak ez ziren maiorazkokoak, eta horregatik jaso ahal izan zituen herentzian Pero Lopez Altzolaraskoa seme gazteak.



2.14. irudia. Aizarnako Egañagoikoa.

Azpeitian bizi zen Ramus Zabala Getarian izan zen Pero Lopez eta Maria Lopez Untzetakoaren ezteietan, eta Bekola konpontzen ibili zen. Galderak zioenari baiezkoa eman zion. Fernando Zabala aizarnarrak ere Jofre anaia zahartzak zeukan. Martin Zubiaurre ados zegoen galderak zioenarekin. Joan Indok ere Jofre zeukan anaia zahartzat; Martin Olazabal aiarrak ere bai, eta Bekolako ondasunak ez omen ziren maiorazkokoak.

Hurrengo Beltran Untzetak, Maria Perez Untzetakoa zenaren anaiak, hitz egin zuen. Jofre omen zen anaia zaharra. Martin Ruiz Errekondokoa Joan Lopez Altzolaraskoa zenaren biloba zen, eta galderari baiezkoa eman zion; baita Joan Martinez Untzetakoak, Blas Artazubiagak eta Joan Martinez Akoakoak? ere. Iritzi berekoak ziren Martin Fernandez Edarritzagakoa, Esteban Artazubiaga (Jofreren lehengusu propioa) eta Sebastian Artazubiaga ere.

Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren semeak zioenez, 1519. urte inguruan Valladoliden ahalordeaz zebilen, Altzolarats jauregiko Joan Beltran Gebarak Domingo Arronarekin (Ana Arretxeren senarrarekin) zeukan auzian. Orduan ikasi zuen Aizarnan maiorazkoko etxerik ez zegoela.

- 4. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Martin Egaña ados zegoen galderak zioenarekin. Joan Otxoa Artazubiagakoa ere bai, baina Aizarnako plaza ondoko lursaila Joan Martinez kontulariak lehenago saldutako prezioan erosita bereganatu egin omen zuen. Pedro Iribarrenak ontzat eman zuen galderak zioena. 200 dukatean saldu omen zuen Pedro Lopezek Asu baserria 1520. urte inguruan.

Ramus Zabalak zioenez, ados zegoen galderaren edukiaz. Gainerako lekukoek ere, oro har, baietz erantzun zuten. Martin Olazabalek zioenez, Esteban Artazubiagak 450 dukat ordainduta erosi zuen Iruresaroe baserria. Martin Ruiz Errekondokoaren arabera, Pero Lopezek anaia Jofreri Pagaldazuri eta Zornotza baserriak saldu zizkion. Domingo Fernandez Dornutegikoaren arabera, Pero Lopezek anaia Jofreri Zornotza eta Olazarreta baserriak saldu zizkion.

- 5. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Martin Egañak zioenez, Pero Lopez Altzolaraskoak eta Maria Perez Untzetakoak, hain zuzen 600 dukat zor zizkioten Joan Arteagari, eta honek zorra kobratzeko Bekola eta bere ondasunak exekutatu eta bereganatu egin zituen. Ondasun haiek 13 urtez eduki zituen Joan Arteagak. Gainerako lekukoek ere berdintsu erantzun zioten galderari. Sebastian Artazu-

biagak zioenez, Gipuzkoako korrejidore Luis Perez lizentziatua zela enkantean salduta bereganatu zituen Joan Arteagak Bekolako ondasunak.

- 6. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Martin Egañak baieztatu egin zituen galderak adierazitako puntu guztiak. Gauza bera egin zuten, oro har, gainerako lekukoek ere. Martin Olazabalen arabera, Iturrimatia izeneko lekuan bildu ziren Joan Ruiz Arrazubikoa eta Martin Ruiz Errekondokoa tratua egiteko. Beltran Untzetak zioenez, Joan Arteaga Bekolaz jabetu zenean, Maria Perez Untzetakoa bere seme-alabekin Getariara joan zen gurasoen etxera bizitzera. Blas Artazubiagak zioenez, Joan Martinez Olotzagakoa kontulariaren ezkontzaren bidez konpondu ziren Bekolako etxea, burdinola, errotak, baserriak, sagastiak, etab. Bestela denak galduko omen ziren.

- 7. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Martin Egañaren arabera, Bekolako ondasunak erorita eta galzorian zeuden Martin Ruiz Errekondokoak eta bere bi lagunak hartu zituzten arte. Bekolako etxea teilarik gabe omen zegoen. Baserriak, burdinola, errota, etab. hutsik eta errentarik ematen ez zutelako omen zeuden. Berdintsu erantzun zuten gainerako lekukoek ere. Ramus Zabalak, Bekolara egurra eta ikatza garraiatzen ibili zenak, gauza bera zioen.

Martin Ruiz Errekondokoak eta bere bi lagunak deituta, Martin Olazabal zurgin-maisuak erorita eta hustuta ikusi omen zituen Bekolako ondasunak, baina Errotabarrenan ba omen zegoen maizterra. Joan Martinez Untzetakoak zioenez, Aizarnako plazako Florentzia etxean ere bazegoen maizterra. Blas Artazubiagaren arabera, Pero Lopez Altzolaraskoa Gipuzkoako Probintziaren kartzelan (Azpeitian) preso hil zen zorrak zituelako.

- 8. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Martin Egaña sinetsita zegoen Martin Ruiz Errekondokoak eta bere bi lagunak Bekolako etxe, burdin-

ola, errota, etab. konpontzen 200 dukat edo gehiago gastatu zituztela. Joan Otxoa Artazubiagakoak zioenez, Martin Aia (edo Olazabal) zurgin-maisua ibili zen konponketak egiten. Gainerako lekukoek, oro har, galderari baiezkua erantzun zioten. Martin Olazabal aiarrak zioenez, presa, errota, teilatuak, hauspoak, gurpilak, zepoak, gabia, turtukiak, etab. konpondu zituen, hiru nagusiek aginduta.

- 9. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Joan Otxoa Artazubiagakoak galderako puntu guztiak baieztatu zituen, hain zuzen Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean egindako agiriaren arabera. Pedro Iribarrenak zioenez, ia zortzi urte lehenago, inauteri bezperan, astelehenean, hartu zuten Joan Martinez kontulariak eta Maria Lopez Altzolaraskoaren hiru kudeatzaileek lehen bien arteko ezkontza egiteko erabakia. Maria Lopezen anaia Joan Lopez Altzolaraskoak eta ahizpa Grazia Lopez Altzolaraskoak uko egin zioten Bekolan zuten parteari (bakoitzak 150 dukat jasota) kontulariaren alde, Joan Martinez Amilibikoa eta Joan Martinez Lasakoak eskribauen aurrean. Gainerako lekukoek ere baieztatu egin zuten galderak zioena.

- 10. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Pedro Iribarrenak zioenez, Grazia Lopez Altzolaraskoak zin egin zuen, Pedro Ausoroetxea senarraren baimenaz, bere Bekolako eskubideei kontulariaren eta honen emaztearen alde uko egiteko. Joan Martinez kontulariak 150 dukat agindu zizkion, eta ordaindu ere egin omen zizkion.

Ramus Zabalak gauza bera entzun omen zuen behin Anton Altzolaratsen (Pero Lopez Altzolaraskoa zenaren sasiko semearen) Aizarnako plazako etxean. Pedro Ausoroetxeak zioenez, emazte Grazia Altzolaratsen kontulariaren alde zin egin zuenean, 16 urte besterik ez omen zituen, eta ez omen zekien agiriak zer zioen. Gainerako lekukoek ere baiezkua erantzun zioten galderari.

- 11. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Martin Egaña lekukoaren arabera, Pero Lopez Altzolaraskoa preso egon zen. Zorrak egin zikzian Joan Arteagari eta honen anaiari, Esteban Artazubiagari, Jofre Ibanez Altzolaraskoa anaiari eta beste hainbati. Azpeitiko kartzelan hil eta Aizarnako elizan hobiratu omen zuten Pero Lopez Altzolaraskoa. Galderari baiezkua erantzun zion. Antzeko erantzunak eman zituzten beste lekukoek ere. Blas Artazubiaga Azpeitiko kartzelan omen zen Pero Lopez Altzolaraskoa girgiluz lotuta preso zegoela hil zenean. Pero Lopezen hartzekodunek zenbait zor barkatu egin omen zioten gero Joan Martinez kontulariari.

- 12. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Martin Egañak zioenez, azken zazpi urtean egia zen galderak adierazitakoa. Beltran Untzetaren arabera, hartzekodun batzuek zorraren zati bat barkatu egin zioten kontulariari. Antzeko erantzunak eman zituzten gainerako lekukoek ere.

- 13. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Martin Egañak entzuna zuenez, Joan Martinez Olotzagakoak agindutako 1.500 dukatak ordainduta zeuzkan. Horixe zioten gainerako lekukoek ere. Martin Ruiz Errekondokoaren arabera, kontulariak 100 dukat ordaintzeke omen zeuzkan.

- 14. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Martin Egañak zioenez, egia zen galderan adierazitakoa. Joan Martinez kontulariak Errotabarrena osoa (presa, turtukiak, estolda, etab.), Pagaldazuri eta Zornotza baserriak, Florentzia etxea, etab. konpondu egin zituen. Soroak egin eta hesi, sagastiak landu fruta-arbolak eta zuhaitzak aldatu eta beste hainbat lan egin zuten kontulariak. Berdin erantzun zuten beste lekukoek ere.

- 15. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Martin Egañak zioenez, kontulariak egindako konponketak guztiz beharrezkoak ziren. Bestela ez

omen zuten errentarik jasoko, ez burdinolatik, ez errotetatik, ez baserrietatik eta ez inondik. Fernando Zabala lekukoak ere horixe aitortu zuen; izan ere, Altzolarats errekarra lumaz amuarrainak harrapatzera joaten zenean, Bekolako ondasunen egoeraz jabetu baitzen. Gainerako lekukoek ere baieztatu egin zuten galderak zioena.

- 16. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Aho batez aitortu zuten lekukoek Bekolako ondasunak ez zirela maiorazkokoak. Martin Zubiaurrek zioenez, Lasako etxeak 15 bat urte lehenago lortu zuten maiorazkoa sortzeko errege-baimena. Bere aita Martin Zubiaurre 80 urterekin hil zen 36 bat urte lehenago, eta Zestoan hark ez zuen maiorazkorik ezagutu. Joan Indo apaizak zioenez, gaztetan Salamancan ibili omen zen ikasten, baina Bekolako ondasunak inork ez zituen maiorazkokotzat hartu. Martin Olazabalen iritziz, Gipuzkoan Usurbilgo Atxega etxea zen maiorazkoa zuen bakarra.

Martin Ruiz Errekondokoaren Joan Ruiz Errekondokoa aitarentzat ere, Bekolako ondasunak ez ziren maiorazkokoak. Gurasoek etxea nahi zuten semeari edo alabari ematen zioten, eta gainerako anai-arrebei senipartea batzuetan onibarretan eta beste batzuetan dirutan edo ondasun higigarrietan ematen zieten.

Beltran Loiola-Oñatzen semeak zioenez, Azpeitiko Oñazko etxean, 140 urte lehenago (1392. urtean) hiru oinordeko omen zeuden, eta ondasunak hiru zati egin omen zituzten. Oinordeko batek Enparango etxea bereganatu omen zuen. 60 bat urte lehenago (1472an) Loiolako etxean bi oinordeko zeudelako bi zati egin omen zituzten ondasunak. Beltran izeneko seme gazteari 2.000 marai, burdinola eta bi baserri eman zituzten. Joan Perez Loiolakoa seme zaharrenari Loiolako etxea eta beste zenbait ondasun utzi zituzten.

Gipuzkoan Murgiako etxea, Amezketakoa eta Enparangoa ez ziren maiorazkokoak, Azkoitiko Balda etxea, 40 urte lehenago entzun zuenez, saldu egin omen zuten, beste ondasunetatik bereizita.

2.15. irudia. Lasaoko markesaren etxea.



Joan Martinez Untzetakoak zioenez, Joan Lopez Altzolaraskoa zenaren Maria Joango Altzolarats Errezilgo Errekondo etxera ezkondu zenean, 200 kintal burdinako dotea eraman zuen. Maria Joango-aren ahizpa Nikolas Ibañez Igartzakoarekin Zarautza ezkondu zenean ere hainbat kintal burdina eman zioten dote gisa. Blas Artazubiagaren amona ere Bekolako alaba omen zen, eta Gipuzkoan Usurbilgo Atxaga etxea baino ez omen zen maiorazkokoak.

Martin Fernandez Edarritzagakoak zioenez, 1487. urtean Joan Lopez Altzolaraskoa zenaren Otxoa semea Zestoan ezkondu zenean, 150 kintal burdinako dotea eman zioten gurasoek. Domingo Fernandez Dornutegikoaren iritziz, Usurbilgo Atxaga etxea eta Zestoan Lasao eta Lili etxeak baino ez ziren maiorazkokoak.

Joan Ibañez Amilibikoa eskribaua 62 urterekin hil zen 22 urte lehenago (1510ean), eta semeak zioenez, aitak Atxaga etxea baino ez zeukan maiorazkokotzat. Domingo Fernandez Dornutegikoak amona zuen Altzolaraskoa, eta iritzi berekoa zen.

Sebastian Artazubiagaren arabera, ama Altzolaraskoa zuen, eta Zestoan Iraeta, Lili eta Lasao etxeak baino ez ziren maiorazkokoak.

- 17. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Martin Egañak zioenez, Joan Lopez Altzolaraskoa zenak Getariako Asu baserria Andres Perez Indanetakoari saldu zion, eta Pero Lopezek Esteban Artazubiagari Errezilgo Iruesaroe baserria. Joan Otxoa Artazubiagakoak, berriz, hau zioen: horiez gain Pero Lopez Altzolaraskoak Joan Agirre "Txangilo" ezizenekoari Aizarnako Florentzia etxearen ondoko lursaila saldu ziola. Pedro Iribarenak zioenez, Asu baserria 200 dukatean saldu zen, Iruesaroe baserria 500 kintal burdinatan, eta aipatutako lursaila 6.000 maraitan.

Martin Ruiz Errekondokoak adierazi zuenez, Joan Martinez Olotzagakoak kontulariak Florentzia etxearen ondoko lursaila bereganatu egin zuen, erosita. Lekuko guztiek, oro har, baiezkoa erantzun zioten galderari.

- 18. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Joan Altzolarats eta Otxoa Altzolarats aspaldi hil zirela zioten lekukoek, eta galderak zioena baieztatu egin zuten.

- 19. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Lekukoek baiezkoa erantzun zuten, eta batzuek zehaztu zuten, aipatutako Jofrek eta Martin Ruiz

Errekondokoak Joan Martinez Lasakoa eta Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren bidez egin zuten horretarako agiria.

- 20. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Lekukoek baiezkua erantzun zuten, oro har. Gainera, batzuek ziotenez, kontulariak diruari urtean % 15eko etekina ere aterako zion. Joan Martinez Olo-tzagakoa trebea omen zen tratuak egiten.

- 21. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Oro har, lekukoek erantzundakoaren arabera, edozein etxetan herenaren eta bostenaren hobekuntza gurasoek nahi zuten semeari edo alabari egiten zioten. Gainerako seme edo alabek senipartea jasotzen zuten, dirutan, ondasun higigarritan edo onibarretan.

Martin Egañak zioenez, herenaren eta bostenaren hobekuntza alabari egin zioten Altzolarats jauregian, Urbietan, Aiako Arrazuabian eta Azpeitiko Antxietan. Joan Otxoa Artazubiagakoak adierazi zuenez, Altzolarats jauregian Fernando Gebarak hobekuntza, nahiz eta Joan Beltran semea eduki, alaba Elena Gebarari eman zion Pedro Ibañez Aldamarkoarekin ezkondu zenean. Elena Gebara seme-alabarik gabe hil zenean, Juliana Gebara alabari eman zioten hobekuntza. Oikiako Lasalden ere Juliana Lasalde alabari eman zioten hobekuntza, Joana *Eroa* erreginarene maiordomo Nikolas Intsausti jaunarekin ezkondu zenean.

Pedro Iribarrenaren arabera, Gipuzkoan Arriararen ere alabari eman zioten hobekuntza, Martin Perez Idiakaizkoarekin ezkondu zenean. Pedro Iribarrenak bere aitari, Martin Perez Iribarrengoari, entzun omen zion hori. Aitak 80 urte omen zituen 4 urte lehenago hil zenean. Ramus Zabalak ere gauza bera entzun zion Martin Aranori, 17 urte lehenago 70 urterekin hil zenari. Fernando Zabalak ere horixe ikusi zion 15 urte lehenago 78 urterekin hil zen Beltran Iraetari.

Martin Zubiaurreren arabera, Urbietan etxean hobekuntza Maria Beltran alabari eman zioten, Domingo

Beltran eta Martin Beltran semeak eduki arren. Azpeitiko Antxieta etxean alabak jaso omen zuten hobekuntza, Bidaniko sastrearekin ezkondu zenean.

Joan Indo apaizak ere, gauza bera zioen. Aita Joan Indok (14 lehenago 86 urterekin hil zenak) eta Joan Beltran Urbietak (20 urte lehenago 70 bat urterekin hil zenak) horixe erakutsi zioten. Martin Ruiz Errekondokoak ere gauza bera entzun zion Joan Lopez Altzolaraskoa aitona zenari, zeina 20 urte lehenago 80 baino urte gehiagorekin hil baitzen. Herenaren eta bostenaren hobekuntza jasotzen zuenak, etxeko hildakoen urteurrenak egin behar izaten zituen. 30 urte lehenago 90 urterekin hil zen Joan Ruiz Errekondokoa (Martin Ruizen beste aitona), eta hari ere gauza bera ikasi zion. Joan Ibañez Amilibikoa, Zarauzko erroldako eskribauak, 80 urte baino gehiago omen zituen 30 urte lehenago hil zenean; beraz, 1422. urtea baino lehen jaioko zen.

Akoako Igartza eta Ezenarron ere hobekuntza alabari egin omen zioten, semeak egon arren. Domingo Fernandez Dornutegikoak ere horixe ikasi zien aita Joan Fernandez Dornutegikoari (4 urte lehenago 80 urte baino gehiagorekin hildakoari) eta osaba Iñigo Dornutegiri (2 urte lehenago 60 bat urterekin hildakoari).

- 22. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Lekukoek baietz erantzun zuten. Joan Martinez Olotzagakoak Joan Lopez Altzolaraskoa koinatuari, besteak beste, Salamancan ikasketak egin zituan ordaindu zizkion dukatak.

- 23. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Martin Egañak eta gainerako lekukoek ziotenez, Bekolako mendiak soilduta zeuden, eta basoak hazi arte burdinolak ez zuen lehen adinako errentarik emango, ikatza urrutitik (legoa bat edo bi urrunagotik) ekarri beharko zelako.

Bekolako burdinolak 40 dukateko errenta eduki zuten, ondoan ordura arte baso eta txaradi handiak

2.16. irudia.
Oikiako Dornutegiko
Dorreberri.



izan zituelako, baina orduan basorik gabe zegoen, eta 20 dukateko errenta ozta-ozta emango zuen.

- 24. galderari honela erantzun zioten lekukoek:

Baiezkoan zeuden lekukoak. Gainera, ganaduen gorotzaz simaurtu gabe, lur haiek garirik ia ez zuten ematen. Kontulariak baserrietan behiak, ahuntzak eta ardiak ipini omen zituen.

- 25. galderari honela erantzun zieten lekukoek:

Haien arabera, Bekolako mendi gehienak txaradi ziren, eta landare txikiak zeuzkaten bitartean zaindu egin behar ziren. Bestela, ganaduek (batez ere behiek eta ahuntzek) sartu eta jan egiten zituzten. 10-12 urte behar zituzten landareek hazi eta ikatza egiteko mozteko. Joan Martinez Olotzagakoak lehenbizi Jofre Ibañez Altzolaraskoa eduki zuen zaintzen, baina orduan morroi gazte nafarra zeukan zaintzaile. Urtean 20 dukat kostatzen zitzaion zaintzailea, Gipuzkoan janariak garesti zeudela eta. Fernando Zabalak zaintzailea ikusten omen zuen Altzolarats errekarra amuarrainak harrapatzera joaten zenean (ikus [XVI. m. (32-X) 4] agiria).

2.1.8.3. Joan Lopez Altzolarakoaren galderak eta lekukoek aurkezpena

- 1532-X-30ean, Valladoliden, Martin Arratek (Joan Lopez Altzolaraskoa gaztearen zaintzaileak) errege-agindua erakutsi zion Anton Mendiola eskribauari, eta Zestoara joan zedila eskatu zion. Han eta inguruetan Joan Lopez Altzolaraskoak aurkeztutako lekukoek testigantzak hartuko zituen.

- 1532-X-31n, Valladoliden, Anton Mendiolak Joan Martinez Olotzagakoa kontulariaren Joan Otxoa Urkizukoa prokuradoreari dei egin zion, Joan Lopezen lekukoek testigantzak hartzean han bere aldea egon zedin. Jakinarazpenean lekukoetako bat Esteban Irizar erreteriarra izan zen.

Ondoren, Valladoliden, Anton Mendiola eskribauaren aurrean Martin Arratek Joan Lopez Altzolarakoaren izenean ahalordea eman zien honako hauei: Zestoako Pedro Ausoroetxeari, Joan Ondalderi, Domingo Zabalarri, Joan Kortazarri, Matxino Txiribogari, Domingo Arangureni, Martin Gabiriari, San Joan Arretxeri, Anton Altzolaratsi eta Martin Aranori; baita Azkoitiko Joan Astigarribia eta Kristobal Umanso-

ro eskribauei eta Arroako Pedro Otarari ere. Joan Lopez Altzolaraskoa gaztearen ordezkari izango ziren auzian. Ahalorde-agirian lekukoetako bi Baltasar Isasi eta Diego Anuntzibai izan ziren.

- 1532-XII-5ean, Zestoan, Anton Mendizabal eskribauaren aurrean San Joan Arretxe azaldu zen Joan Lopez Altzolaraskoaren izenean. Lekukoei egin beharreko galderak aurkeztu zituen. Hauek ziren galderak:

1) Ea ezagutu zituzten Joan Lopez Altzolaraskoa gaztea, Pero Lopez Altzolaraskoa aita, Joan Lopez Altzolaraskoa aitona, Joan Martinez Olotzagakoa kontularia eta honen emazte Maria Lopez Altzolaraskoa.

2) Ea ezagutzen zituzten Bekola, honen baserriak, burdinola, errotak, mendiak eta gainerako ondasunak.

3) Ea zekiten Otxoa Lopez Altzolaraskoa (Joan Lopez gaztearen aitona) Elbira Gartzia-rekin Elizak agindutakoaren arabera ezkondu zela. Ea zekiten haien seme zaharrena Joan Lopez Altzolaraskoa izan zela, eta Lope Altzolarats eta beste seme-alaba batzuk ere izan zituztela. Ea zekiten auzi hura 1532ko uztailen hasi baino lehen aipatutako pertsonak fama onekoak zirela.

4) Ea zekiten Joan Lopez Altzolaraskoa (Joan Lopez gaztearen birraitona) Maria Ibañez Lasaokoarekin ezkondu zela. Ea zekiten haien seme-alabak hauek izan zirela: Joan Lopez Altzolaraskoa seme zaharrena (aitona) Lope Altzolarats, Maria Joanes Altzolaraskoa eta beste zenbait.

5) Ea zekiten Joan Lopez Altzolaraskoa aitona Grazia Sasiolarekin ezkondu zela eta seme-alaba hauek izan zituztela: Jofre Ibañez Altzolaraskoa, Pedro Lopez Altzolaraskoa (Joan Lopezen aita) eta Grazia Altzolarats.

6) Ea zekiten Pero Lopez Altzolaraskoa (aita) Maria Perez Untzetakoarekin ezkondu zela eta Joan Lopez Altzolaraskoa semea izan zutela.

7) Ea zekiten Joan Lopez Altzolaraskoaren aita, aitona, birraitona eta birraitonaren aitaren garaian, azken 100 urteetan, Bekolako ondasunak maiorazkokoak izan zirela, eta seme zaharrenak izan zirela oinordeko.

8) Ea zekiten Otxoa Lopez (birraitonaren aita) hil zenean Joan Lopez Altzolaraskoa (birraitona) seme zaharrena izan zela oinordeko, eta beste anai-arrebei ez zietela parterik eman.

9) Ea zekiten Joan Lopez birraitona hil zenean oinordeko Joan Lopez aitona izan zela.

10) Ea zekiten Joan Lopez Altzolaraskoa aitona hil zenean oinordeko Pero Lopez Altzolaraskoa (aita) izan zela, Jofre anaia zaharrena maiorazkoa utzi egin zuelako, eta anai-arrebei parterik ez zietela eman.

11) Ea zekiten Bekolan oinordeko ez ziren anai-arrebei emandako parte oso txikia zela eta sal zitezkeen ondasunekin (maiorazkotik kanpokoekin), diruarekin, burdinarekin, arrokekin eta abarrekin ordaindu zitzaizela.

12) Ea zekiten azken 8 urteetan Joan Martinez Olotzagakoak zeuzkan Bekolako ondasunek urtean 300 dukateko errenta eman zezaketela.

13) Ea zekiten auzitan zebilen Joan Lopez Altzolaraskoa 25 urte bete gabea zela, eta 20 urte ere ez zituela.

14) Ea zekiten Bekolako ondasunek azken 10 urteetan, saltzera jarriz gero, 13 edo 15 mila dukat balioko luketela.

15) Ea zekiten galderetan aipatutakoa Zestoan, Aizarnan eta inguruetan ezaguna zela.

Galdera haiek zituen agiriaren aurkezpenean lekuko Fernando Olazabal medikua, Joan Martinez Ibañetakoa eskribaua eta Joanes Ipintza apaiza izan ziren.

Egun berean, Zestoan, San Joan Arretzek Anton Mendiola eskribauari lekuko gisa Joan Martinez Ibañetakoa eskribaua aurkeztu zion. Honek zin egin zuen egia aitortuko zuela (ikus [XVI. m. (32-X) 4] agiria).

- 1532-XI-12an, Valladolidko Kantzelaritzako Fernando Villafranca eskribauak idatzi zuenez, Joan Lopez Altzolaraskoari ere 80 eguneko epea eman zioten. Anton Mendiolari hilaren 19an eman zioten agindu haren berri (ikus [XVI. m. (32-X) 5] agiria).

- 1532-XII-6an, Zestoan, San Joan Arretzek lekuko gisa Joan Perez Arretzekoa aurkeztu zuen. Gero Joan Kamio, hau ere zestoarra. Biek zin egin zuten. Joan Gonzalez Amezketakoa eta Sebastian Zabalaga izan ziren lekuko zinean. Hurrengo aurkeztutako lekukoa Fernando Olazabal medikua izan zen.

- 1532-XII-7an, Aizarnan, Joan Apatetik Joan Lopez Altzolaraskoaren izenean Anton Mendiolari lekuko hauek aurkeztu zizkion: Domingo Aspuru, Azpeitiko Ramus Zabala, Joan Ezenarro, Martin Egaña zurgina (Aizarnako plazan bizi zena). Denek zin egin zuten egia erantzungo zutela.

- 1532-XII-9an, Aizarnako elizan, Joan Apatetik lekuko gisa Maria Perez Potzuetakoa aurkeztu zuen (Martin Aranoren emaztea), 13. galderari erantzuteko. Ondoren Aizarnako plazan Esteban Aranguren barberua aurkeztu zuen lekukotzat. Gero Egaña etxean Joan Apatetik Pedro Egaña aurkeztu zuen lekuko gisa.

- 1532-XII-10ean, Aizarnako Gorosarrin Joan Apatetik Joan Gorosarri lekukoa aurkeztu zuen. Joan Martinez Olotzagakoa eta Joan Lopez Altzolaraskoa koinatua izan ziren zinean lekuko, eguraldi txarragatik beste gizonik han ez zegoelako.

Gero, Aizarnako plazan, Joan Apatetik Katalina Aio? lekukoa aurkeztu zuen, 13. galderari erantzuteko. Zin egin zuen honek ere.

- 1532-XII-11n, Urbietan, Fernando hauspogilea aurkeztu zuen lekukotzat Joan Apatetik. Ondoren



2.17. irudia. Zestoako Arretzeko portalea.

Joan Etxabe zumaiarra aurkeztu zuen. Biek zin egin zuten Joan Amas eta Martin Ondalderen aurrean.

1532-XII-12an, Oikiako elizan, Joan Apatetik Pedro Martinez Mantzizidorkoa aurkeztu zuen. Ondoren, Goiburun, Martin Narbazta aurkeztu zuen, eta Oikian Joan Agirre. Guztiek zin egin zuten (ikus [XVI. m. (32-X) 4] agiria).

- 1532-XII-17an, Aizarnako plazan, Anton Mendiola eskribauaren aurrean Joan Martinez Olotzagakoa azaldu zen, eta urriaren 30eko errege-agindua erakutsi zion. Han zioena betetzeko prest zegoen eskribaua, bere soldata eta zegokiona kobratzekotan. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Lope Amilibia, Tomas Amilibia eta Joan Otxoa Artazubiagakoa.

Jarraian Anton Mendiola eskribauak, Joan Lopez Altzolaraskoaren prokuradore Joan Apategiri jakinarazi zion errege-aginduak zioena. Lekukoen testigantzak hartzean bertan egon zedila eskatu zion.

- 1532-XII-18an, Aizarnako plazan, Joan Otxoa Artazubiagakoa apaiza aurkeztu zuen kontulariak, eta hark ere zin egin zuen, aurrean Azpeitiko Domingo Altzaga eskribaua eta Aizarnako Anton Altzolarats zirela.

- 1532-XII-19an, leku berean, Martin Iribarrena aizarnarrak zin egin zuen, lekuko Domingo Altzaga eta Joan Otxoa Artazubiagakoa izanik. Jarraian Azpeitiko Ramus Zabalak zin egin zuen Domingo Alzagaren eta Domingo Aranoren aurrean.

- 1532-XII-20an, Aizarnako plazan, Zestoako Fernando Zabalak zin egin zuen. Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Joan Arano errementaria izan ziren lekuko. Egun eta leku berean Blas Artazubiaga eskribauak zin egin zuen.

- 1532-XII-22an, Aizarnan, Pedro Ausoroetxeak (Zestoako alkateak) zin egin zuen. 19. eta 25. galderei baino ez zion erantzungo. Blas Artazubiaga eta Domingo Aranburu izan ziren lekuko. Martin Zubiaurrek ere egin zuen zin, baina 22. galderari ez zion erantzungo. Lekuko Ipintzako abadea eta Intzinako abadea izan ziren.

- 1532-XII-30ean, Aizarnako plazan, Joan Martinez Akoakoa lekukoak zin egin zuen. 6. eta 22. galderei ez zion erantzungo. Lekuko Joan Amilibia harginmaisua, honen seme Lope Amilibia eta Joan Otxoa Artazubiagakoa apaiza izan ziren. Hurrengo Martin Fernandez Edarritzagakoak zin egin zuen. 22. galderari ez zion erantzungo. Martin Ondalde, Joan Martinez Akoakoa eta Lope Amilibia izan ziren lekuko.

Ondoren Esteban Artazubiagak zin egin zuen, Esteban Arano eta Lope Amilibia lekuko izanik.

- 1532-XII-31n, Martin Olazabal? zurgin-maisu aiarra izan zen zin egindakoa. Esteban Artazubiaga, Anton Altzolarats eta Martin Iribarrena zestoarrak izan ziren lekuko (ikus [XVI. m. (32-X) 5] agiria).

2.1.9. Mirubiko ondasunak, eta Joan Larretxe eta Grazia Mirubiaren ezkontza

- 1532-II-9an, Azkoitian, Gipuzkoako Diego Ruiz de Lugo korrejidoreari eskaria egin zion Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak, Joan Martinez Untzetakoa prokuradorearen bidez. Mirubiko baserri, olatxo, errota, mendi eta lurrak Joan Perezek bereak zituen aurreko urteaz gero korrejidorearen aginduz (ikus [XVI. m. (31-II) 1] agiria). Hala ere, Joan Mirubiak okupatu eta erabili egiten zituen ondasun haiek.

Korrejidoreak, egoera, ikusita, agindua bidali zien Alonso Gutierrez merio nagusiari eta merioordeei Joan Perez babesa eman eta ondasunak okupatzen zizkiotenei zigorrak ezartzeko.

- 1532-IV-4an, Liliko olatxoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean haiek azaldu ziren: Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak, Martin Artazubiaga merioordea eta Joan Mirubia. Joan Perezek korrejidorearen aginduak erakutsi zituen, eta Joan Mirubia prest agertu zen agindu haiek obeditzera. Lekuko Joan Akoa, Domingo Aspe eta Gartzia Etorraetxea izan ziren.

Jarraian, Lili aurreko hariztian Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak, Domingo Lizarrarats aita eta Joan Mirubia elkartu ziren Blas Artazubiaga eskribauarekin. Joan Mirubiak 120 kintal burdina lodi landu eta burdina mehe bihurtu beharra zeukan Domingo Lizarrarats aitarentzat eta izen bereko semearentzat. Baimena eskatu zioten Joan Perez lan hura Mirubiko olatxoan egiteko. Joan Perezek lan horretarako baino ez zion eman baimena. Lekuko Joan Akoa eta Joan Berastegi errementariak izan ziren.

- 1532-VII-27an, Arroako plazan, Zestoako Joan Martinez Amilibikoa eskribauak, Zarauzko erroldakoak, ezkontza-kontratua idatzi zuen. Senargaia Arroako Joan Larretxe zen, Domingo Larretxeren eta Nafarra Zarautzen semea. Emaztegaia, berriz, Grazia Mirubia zen, Joan Mirubia eta Maria Joango Mirubia zenen alaba.

Domingo Larretzek eta Nafarra emazteak ezkontza hartarako ondasun hauek eman zituzten: Arroako Larretxebekoa baserria, bere lur, belardi, soro, sagasti eta gainerako zuhaitzekin. Baldintza batzuk ere ipini zituzten. Ezkonberriek egingo zizkieten Domingori eta Nafarrari, hiltzen zirenean, ohiko hiletak, hirurrenak, bederatzaurrenak eta urteurrenak Arroako San Esteban elizan. Gainera, Domingok eta Nafarrak beretzat gordeko zuten, bizi ziren artean, emandako ondasunen gozamenaren erdia. Gozamenaren beren erdia hil baino lehen ezkonberriei uzten baldin bazieten, hauek mantendu beharko zituzten gurasoak hil arte.

Domingok eta Nafarrak beretzat gorde zituzten zilarrezko bi katilu, 12 haritz, 2 gaztainondo, 50 karga ikatz, oheak eta arropak, 3 kutxa, 6 ahuntz eta 6 ardi. Horiez gain zeuzkaten behi, ardi, ahuntz, txerri, idi eta beste ganaduen erdia eman zieten ezkonberriei; bi ohe oso ere bai.

Bestalde, Grazia Mirubiaren anaia Joan Mirubiak arrebari Mirubia eta Etzubi etxeetan zegokion seniparteagatik 215 dukat agindu zizkion dote gisa; baita 4 ohe, zilarrezko katilua, zilarrezko zinta (2.000 marraikoa), bi gona eta kapa bat ere. Joanez 200 dukat Domingori eta Nafarrari emango zizkien, Larretzeko gainerako seme-alabei senipartea ordaintzeko. Gainerako 15 dukatak, zilarrak, oheak, etab. ezkonberriei emango zizkien, hurrengo Eguberrietan. Lehen ordainaldia hurrengo Eguberrietan izango zen, eta Domingori eta Nafarrari 55 dukat emango zizkien. Handik urtebetera beste 40 dukat emango zizkien, eta gero urtero beste 40, bosgarren ordainaldian 215 dukatak osatu arte. Azken 40 dukatetatik 15 ezkonberrientzat izango ziren.

Mirubiko etxeak Getariako Maria Joango Mirubiari eta Debako Kristobal Artazubiagari guztira 70 dukat zor zizkien, baina zor haiek ordaintzearen ardura Joan Mirubiak bere gain hartu zuen. Joan



2.18. irudia. Arroagoia.
(Indalezio Oiangurenen argazkia).

Mirubiak dote osoa Grazia arrebari ordaindu arte, Aizarnazabalgo Etzubiko ondasunen erdiaren eta Mirubiko hainbat zuhaitzen eta karga ikatzen jabe Grazia Mirubia izango zen. Graziaren asmoa ondasun haien jabe izatekoa zen, dotea osorik kobratzen zuen arte.

Ezkontza seme-alabarik gabe hausten baldin bazen, edo seme-alabak testamentua egin gabe hiltzen baldin baziren, ezkontzara ekarritako ondasun bakoitza jatorrizko enborrera itzuliko zen, etorrerako epe berak itzulerarako erabiliz. Ezkontza aldi irabaziak lortu bazituzten, erdi bana itzuliko ziren.

Ezkontza-agirian lekuko hauek izan ziren: Arroako elizako Martin Segura apaiza, Debako Martin Olaberriaga eta Elgoibarko Joaniko Nafarmendi (ikus [XVI. m. (32-II) 10] agiria).

2.1.10. Joan Ondalde eta Maria Bengoetxearen ezkontza

- 1532-V-23an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Martin Ondalde (Maria Ortiz Ondaldekoren senarra) eta Maria Joango Bengoetxea (Domingo Bengoetxearen alarguna) elkartu ziren. Martinen seme Joan Ondalderen eta Maria Joangoren Maria Bengoetxea alabaren arteko ezkontza-kontratua egin zuten bi gurasoek. Martinek ezkongaietara Ondalde eta Goikoetxeta baserriak beren lur, mendi, belardi, zuhaitz eta guzti eman zizkien. Zestoako eta Saiazko partean zeuden lurak.

Horiez gain, Ondalden eta Altzolaratsen zeukan arrea eta etxeko tresneria eman zien. Hala ere, Martinek eta emazteak beren bizialdirako ondasunen gozamenaren erdia beretzat izango zuten. Txaradi eta basoetan lepatutako zuhaitzen egurra ere Martinentzat eta Maria Ortiz emaztearentzat izango zen, eta hurrengo bi urteetan jaso beharko zuten. Mastak egiteko bi zuhaitz onenak ere Martinek beretzat izango zituen; halaber etxean zeuzkaten oheak. Ezkonberrientzat izango ziren upel ertain bat eta etxeko zenbait tresna.

Ondalden lurra lantzeko zeuden tresnak eta ganaduak Martinentzat izango ziren, baina bi behi beren txahalekin ezkongaietara. Martinek eta emazteak beren gozamenari uko egiten bazioten, ezkongaiak behar bezala mantendu beharko zituzten beren bizialdian. Hildakoan haien hiletak eta elizkizunak egingo zituzten.

Martinek ondasunen herenaren eta bostenaren hobekuntza egin zien Joan semeari eta emazteari. Ondaldek gainerako seme-alabei hau agindu zien seniparte gisa: Maria Ortiz Ondaldekoa alaba zaharrenari 60 dukat, eta Martin Ondalde, Maria Ondalde eta Maria Joango Ondalde seme-alabei 20na dukat.

Maria Joango Bengoetxea alargunak alaba Mariaren dote gisa hauek agindu zituen: 170 dukat, lau ohe oso, 11 dukateko zilarrezko katilua, bi behi bere txahalekin eta alabaren arropak. Lehen 100 dukatak Martin Ondalderi eta emazteari hurrengo San Migel

egunerako ordainduko zizkien. Beste 20 dukat egun berean ezkonberriei emango zizkien, eta azken 50 dukatak hiru urte barru Martini eta emazteari.

Martin Ondaldek fidatzaile gisa Zestoako Martin Indo eta Pedro Ausoroetxea aurkeztu zituen, eta hauek onartu egin zuten kontratua. Maria Joango Bengoetxearen fidatzaileak Debako Joan Arantza eta Zestoako Joan Bengoetxea semea izan ziren. Ezkontideren bat hilda ezkontza seme-alabarik gabe hausten baldin bazen, edo seme-alabak testamentua egiteko adinera iritsi baino lehen, edo testamentua egin gabe hiltzen baziren, ezkontzara eramandako ondasun bakoitza jatorrizko enborrera itzuliko zen. Alde bakoitzak bere fidatzaileak kontratu hartatik onik eta kalterik gabe ateratzeko konpromisoa hartu zuen.

Ezkontza-kontratuan lekuko hauek izan ziren: Zestoako Sebastian Artazubiaga, Joanes Potzueta, Fernando Olazabal eta Joan Fernandez Arreitza, eta Zumaiako Martin Goiburu.

- 1532-V-26an, Aizarnan, Blas Artazubiagaren aurrean Martin Ondalde eta emazte Maria Ortiz Ondaldekora zeuden. Blas eskribauak Maria Ortizi hiru egun lehenago senarrak eta Maria Joango Bengoetxeak egindako ezkontza-kontratuaren berri eman zion, eta Maria Ortizek erabat onartu zuen.

Ondoren, Joan Ondalde eta Maria Bengoetxea Aizarnako elizan Joan Otxoa Artazubiagak apaizak ezkondu egin zituen. Ezkonberriei onartu egin zuten ezkontza-kontratua. Gainera, Martin Ondaldek eta emazteak idia eta txerri bat eman zieten ezkonberriei, eta Maria Joango Bengoetxea alargunak ere opari bera egin zien, kontratuan zehaztutakoaz gain. Maria Ortiz Ondaldekoa alaba zaharrenak, agindutako 60 dukatak jasotzeko baldintzarekin, seniparteari uko egin zion anaia Joan Ondalderen mesedetan.

Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Sebastian Artazubiaga, Martin Perez Artzubiagakoa, Domingo Arrona (semea) eta Fernando Olazabal (ikus [XVI. m. (32-V) 11] agiria).

- 1532-V-26an, Aizarnako elizan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria Bengoetxea zegoen. Maria, hain zuzen, Joan Otxoa ...rekin? ezkondu zen egun hartan, Maria Joango Bengoetxea amaren aginduz. Mariaren aita Domingo Bengoetxea zena izan zen.

Mariari dote gisa amak 170 dukat, 4 ohe, ganaduak, arropak, etab. agindu zizkion, eta, horrenbestez, Mariak uko egin zion etxeko seniparteari anaia Joan Bengoetxearen alde. Zin egin zuen agiri hark zioenaren aurka ez zela hasiko. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Sebastian Artazubiaga, Domingo Arrona (semea) eta Martin Perez Artzubiagakoa (ikus [XVI. m. (32-V) 12] agiria).

2.1.11. Pedro Gesalaga eta Ana Gaintzaren ezkontza

- 1532-IX-9an, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauak ezkontza-kontratua idatzi zuen. Zestoako Pedro Gesalaga zen senargaia, Jakobo Gesalagaren eta Maria Lopez Gesalagakoaren semea. Emaztegaia Ana Gaintza zen, Debako Joan Gaintza hargin zenaren eta Maria Joan Akertzaren alaba. Jakobo Gesalagak eta emazteak ezkongaei ondasun hauek eman zizkieten dohaintzan: Gesalaga baserria bere lur eta zuhaitz guztiekin, Zestoako Kontzejuari, Domenja Urbietari

eta honen senar Joan Arbestaini (edo "Joan Akoa"ri) erositako lurrak, arrea, etxeko tresneria eta nekazaritzako tresnak, behi-aziendako 20 buru, ahuntz-aziendako 40 buru, ardi-aziendako 10 edo 12 buru, txerri-aziendako 8 buru eta zamaketarako 2 zaldi.

Dohaintzan emandako ondasun haien gozamenaren erdia Jakobo eta emazte Maria Lopezentzat izango zen bizi ziren artean. Hildakoan dena ezkonberrientzat geratuko zen, eta hauek egingo zizkieten hiletak eta elizkizunak; baita Gesalagako gainerako hildakoei ere.

Jakobok eta Maria Lopezek beste seme-alabei senipartea emateko, ondasun hauek gorde zituzten: Gesalagan zituzten eta ordura arte aipatu ez zituzten behiak, ahuntzak eta erlauntzak. Haietako 4 erlauntza Ana Gaintzari eman zizkieten, Pedro senarrak bereak zituen beste 8 erlauntzekin elkartzeko.

Jakobok eta Maria Lopezek gozamenaren erdiari uko egiten bazioten, ezkonberriek behar bezala mantendu beharko zituzten.

Maria Joan Akertzak alaba Ana Gaintzari dote gisa hauek agindu zizkion: 80 dukat, zilarrezko katilua, hiru ohe oso, arrea eta arropak. 80 dukat haiek Gesa-

2.19. irudia. Arroako Akertzaberri.



lagako beste anai-arrebei senipartea ordaintzeko izango ziren: 40 dukat Pedroren arreba Graziatxo Gesalagarentzat, 20 dukat Jakobo Gesalaga semearentzat, eta beste 20 dukat Domenja Gesalagarentzat.

Pedro Gesalagaren anai-arrebak horrenbestez eta lehen aipatutako ganaduak hartuta, ados geratu ziren, eta eskubide guztiak Pedro Gesalaga anaiari eman zizkioten.

Maria Joan Akertzak 10 eguneko epean 40 dukat ordainduko zituen, eta beste 40ak hurrengo abuztuko Andre Mariaren egunean. Maria Joane fidatzaile hauek hauek aurkeztu zituen: Zestoako Martin Artzuriaga eta Debako Martin Ibia, Domingo Gaintza eta Martin Akertza. Jakobo Gesalaga eta Maria Lopez emaztearen fidatzaileak hauek ziren: Zestoako Pedro Egaña eta San Joan Egaña.

Ezkontza hura legezko seme-alabarik gabe haus-ten bazen edo seme-alabak testamentua egin gabe hiltzen baziren, ekarritako ondasun bakoitza bere jatorrizko enbarrera itzuliko zen. Alde bakoitzak konpromisoa hartu zuen bere fidatzaileak kontratu hartatik onik ateratzeko.

Ezkontza-kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Zubiaurre, Domingo Aspe eta Joan Lizarrarats.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Jakobo Gesalaga semea eta Domenja Gesalaga anai-arrebek, 25 urte bete gabeak zirelako, zin egin zuten agindu zitzaientz gain seniparteagatik zegokiena Pedro Gesalaga anaiari ematen ziotela.

Ondoren Ana Gaintza ezkonberriak bere seniparteko eskubideei uko egin zien Domingo Gaintza anaiaren alde, agindu zizkioten 80 dukatak eta guazak jasoz gero (ikus [XVI. m. (32-IX) 5] agiria).

- 1532-IX-29an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Maria Joan Akertza Gesalaga baserrian aurkeztu zen. 20 egun lehenago Ana Gaintza alaba

Pedro Gesalagarekin ezkondu zen, eta orduan alabari agindutako dotearen lehen zatia ordaintzera etorri zen, hau da, 40 dukat, oheak, zilarrezko katilua, arreo eta arropak ekarri zituen. Oheak, zilarra eta arropak Pedrok eta Anak jaso zituzten, eta 40 dukatak Jakobo Gesalaga aitak, Maria Lopez Gesalagakoa amak, Grazia, Jakobo (semea) eta Domenja anai-arrebek eta hauen fidatzaileek. Pedroren anai-arrebek zin egin zuten agiri hark zioenaren aurka ez zirela joango.

Ordainagirian lekuko hauek izan ziren: Zestoako Martin Artzuriaga eta Martin Zubiaurre, eta Debako Anton Sasiola (ikus [XVI. m. (32-IX) 14] agiria).

2.1.12. Joango Arretxe eta Mariatxo Gorosarriren ezkontza

- 1532-IX-25ean, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauak ezkontza-kontratua idatzi zuen. Sennargaia Joango Arretxe zen, Domingo Arretxeren eta emazte Maria Martinez Ibiakaizkoa zenaren legezko semea. Emaztegaia Maria Gorosarri zen, Martin Gorosarriren eta Maria Lopez Aspekoaren alaba naturala.

Domingo aitak ezkongaiantzat ondasun hauek utzi zituen: Arretxetxiki izeneko baserria, Zestoako harrresi ondoan zegoena, bertako arreo, tresna, baratze eta soroekin. Maria Lopezek alabaren dote gisa 60 dukat agindu zituen: 20 dukat ezkonberrientzat, eta 40 dukat Domingok Arretxetxikiko beste semeei senipartea eman ziezaien. 60 dukat haiek Maria Lopezek Arretxeazpietako lurak emanda hartuko zituen Domingok. Lurrek 60 dukat baino gehiago balio bazituen, gainerakoa Maria alabarentzat eta Joango Arretxerentzat izango zen. Lur haietan parte zuen eta bertan zegoen Joanes Ipintza apaizak ontzat eman zuen dohaintza hura.

Domingo Arretxek ezkonberriei utzi zien ondasunen gozamen osoa, baina haiek egingo zizkioten hiletak eta urteurrenak. Maria Lopezek berea izango zuen, bizialdian, emandako ondasunen gozamenaren erdia. Hiltzen zenean ezkonberrientzat izango zen, baina haiek egingo zizkioten hiletak eta urteurrenak.

2.20. irudia. Aizarnako
Gorosarri.



Ezkontza seme-alabarik gabe deuseztatzen bazen, edo seme-alabak testamentua egiteko adina baino lehen hiltzen baziren, emandako ondasun bakoitza bere jatorrizko enborrera itzuliko zen.

Domingo Arretxek fidatzailetzat Arroako Fernando Sorazabal eta Joan Egaña aurkeztu zituen. Domingo Arretxek seme Domingo eta Joan Arretxeri (ezkonberraren anaiei) seniparte gisa 20na dukat agindu zizkien, eta hauek onartu egin zuten eskaintza.

Ezkontza-kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Zabala, Martin Artzuriaga eta Martin Fernandez Edarritzagakoa.

Jarraian, Domingo Arretxe semeak, Joan Arretxek, Joango Arretxek eta Maria Gorosarrik zin egin zuten ezkontza-kontratuak zioenari ez ziotela aurka egingo (ikus [XVI. m. (32-IX) 13] agiria).

- 1532-X-15ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: batetik Domingo Arretxe-Etxenagusia hargina, Zestoako eta Debako auzotarra, eta Maria Lopez Aspekoa (edo Lopeitza Aspe), eta, bestetik, Maria Martinez Lilikoa alarguna bere alaba Madalena Zuube alargunarekin. Madalena, hain zuzen, amaren fidatzaile gisa zegoen.

Domingo Arretxeren seme Joango Arretxe Maria Lopezen Maria Gorosarri alabarekin irailaren 25ean ezkondu zenean, Maria Lopezek Domingori Aspe etxearen zati bat, lursaila eta baratzea eman zizkion. Aspe etxearen zati hura Joanes Ipintza apaizak bereztat gorde zuen etxearen gainerakoa bere garaian Joan Perez Elorriagakoa eskribauaren aurrean Martin Lizaso zenari (Maria Martinezen suhiari) saldu zionean.

Egun hartan, ordea, Domingok etxe zatia lursaila eta baratzea Maria Martinez Lilikoari saldu zizkion 60 dukatean, Maria Lopezek eta Joanes Ipintzak onartuta. Lur eta baratzearen mugakideak hauek ziren: ibai aldean Joan Akoa eta emazte Domenja Urbieta-aren baratzearen horma, Martin Lizaso zenaren oinordekoen lurak, eta beste aldean Joango Arretxeren lurak. Saldutako etxe zati, lur eta baratzeagatik elizari ezer eman beharrik ez zuen izango Maria Martinezek.

Salerosketa-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, Migel Artazubiaga eta Joan Akoa.

Ondoren, Domingok eta Maria Lopezek Maria Martinez Lilikoa Aspeko etxe zatira eta baratzerazartu zuten. Handik beste guztiak irtenda, Maria Martinezek atea itxi eta ireki eta lurra aitzurtu egin zuen, jabe zela adieraztearren.

Jarraian, Maria Martinez Lilikoak obligazio-agiria eman zion Domingo Arretxeri 60 dukatak ordaintzeko: 40 dukat hamar egun barru, eta gainerako 20 dukatak hurrengo Eguberri egunerako. Horretarako Maria Martinezek Etorrazarren (edo Etorragoikoan) zeuzkan ganaduak hipotekatu egin zituen Domingo Arretxeren alde.

Ondoren, Maria Martinez Lilikoak konpromisoa hartu zuen alaba eta fidatzaile Madalena Zuube obligazio hartatik onik eta kalterik gabe ateratzeko (ikus [XVI. m. (32-X) 2] agiria).

2.1.13. Maria Martinez Intzinakoaren testamentua

- 1532-VI-17an, Aizarnan, Maria Martinez Intzinakoa alargunak testamentua egin zuen Blas Artazubiaga eskribauaren bidez. Hildakoan Aizarnako elizan, osaba Joan Gebara apaizaren hilobian lurperatuko zuten, eta ohiko hiletak egingo zizkioten. 30na meza emango zituzten haren arimaren alde apaiz hauek: Joanes Potzueta semeak, Joanes Ipintzak, Joan Otxoa Artazubiagakoak, Domingo Urbietak eta Joan Martinez Lilikoak.

Jarraian limosna batzuk ematea agindu zuen: gati-bu zeuden kristauak askatzeko erreal erdia, Aizarnako elizarentzat mihisea eta mahai-zapi batzuk, Santa En-

graziako ermitarentzat erreal bat, Zestoako ospitalearentzat erreal erdia, Zestoako elizarentzat erreal bat, eta Aizarnazabalgo elizarentzat erreal bat.

Ondoren Maria Martinezek bere zorren zerrenda egin zuen: Ana Arretxeri 2 dukat eta imina bat gari, Domenja Liliri 2 dukat, Maria Perez Portalekoari 1,5 dukat, Domingo Etxabe anaia errementariari 2 dukat, Aizarnako pertsona bati 2 dukat, Txomen Igartzari dukat bat, Katalina Zabalari dukat bat, Martin Ondalderi 30 txanpon, Margarita Etorralderi 12,5 txanpon, eta Blas Artazubiagari 6 erreal.

Maria Martinezek kobratzeko zorrak ere bazituen. Zordunetako bat Altzolarats jauregiko Joan Beltran Gebara zena zen. Batetik 14 dukat eta 40 txanpon zorretan utzi zizkion, eta, bestetik, 12 dukat Joan Gebara osaba apaizari. Bi zorrak kobra zitzatela agindu zuen. Aizarnazabal etxeok 22 dukat zor zizkioten Maria Martinezi, Bekolakoek 4 dukat, Ramus Zabalak 6 dukat, Getarian upel bat ardo, Domingo Aldalurrek 2 dukat, Joan Perez Altzolaraskoak 12 dukat (Joan Aizarnaren itsasontzia galdu zenean emandakoak) eta Maria Joanes Aizarnateak 9 edo 10 txanpon.

Joanes Potzueta seme apaizari 40 dukat agindu zizkion; baita bi ohe bere izarekin, 5 ardi, upelak, mahaia,



2.21. irudia. Aizarnako Intzina.

etab. ere. Mariatxo bilobarentzat ohe osoa utzi zuen. Gainerako ondasunen oinordeko unibertsal alaba Maria Intzina-Potzueta izendatu zuen, Joango Zelaiaren emaztea. Testamentu-betearazle hauek izango ziren: Joanes Potzueta semea, Joango Zelaia suhia, Maria Intzina-Potzueta, Maria Perez Altzolarats-Arronakoa, Martin Ondalde eta Joan Igartua.

Testamentuan lekuko hauek izan ziren: Joan Otxoa Artazubiagakoa, Domingo Aranguren, Domingo Urbietta eta Esteban Eztiola eskribaua (ikus [XVI. m. (32-VI) 11] agiria).

2.1.14. Maria Perez Baltzolakoaren eta Martin Perez Kortazarkoaren testamentuak

- 1532-VII-15ean, Zestoako errebalean, Maria Perez Baltzolakoak testamentua egin zuen Blas Artazubiaga eskribauaren bidez. Lehendik beste testamentu bat egin zuen 1530-VI-18an bere ondasunen inbentarioarekin (ikus *III ZESTOA XVI. MENDEAN (1521-1530)* liburuko [XVI. m. (30-VI) 12] agiria), eta bigarren testamentu hura lehenaren osagarri izango zen.

Zestoako elizari, lehen agindutakoaz gain beste 4 dukat emango zizkieten Ana Ipintzari kobratuta, eta Santa Engraziako ermitari lehen agindutakoaz gain beste 8 erreal, bertan erreteila egiteko. San Lorenteko ermitari erreala emango zioten.

Ana Ipintzak 2 dukat ordaindu zizkion, eta beste 2 dukat barkatu egin zizkion Maria Perezek. Beste 15 dukat zituen zorretan Anak. Ana Lasaok zor zion dukata ordaindu egin zion. Juliana Gebarak (edo Juliana Altzolaratsek) dukat bat ordaindu zion, eta beste bat zorretan zeukan. Mariana Paginori soineko berdea eman zion. Graziatxo Ipintzari Maria Perezek 18 erreal zor zizkion. Blas Artazubiaga eskribauari dukata eta 8 txanpon zor zizkion. Pagioko Martin Arginek ere ganaduengatik zorra egin zion Maria Perezi.

Maria Perez Aiakoari dukat bat ordainduko zioten, Grazia Baltzolari txanpon 1 eta 11 sos, Txomen

Eginori? 43 sos, Grazia Lizasoetari kopuru txiki bat, eta Maria Martinez Baltzolakoari 3 txanpon. Joan Lizarraratsekin ere bazuen zor bat, etxearen errentagatik eta ferra batzuegatik. Erreal bat emango zioten. Maria Iroztegik bi dukat zor zizkion Maria Perezi. Pagioko Martin Arginek 48 dukat eta 6 erreal zor zizkion, baina 3 dukat itzuli zizkion Gorosarri, Areitzaga eta Pagiara eramandako ganaduekin. Maria Martinez Altzolaraskoak 3 dukat inguru zor zizkion.

Alabarentzat hauek utzi zituen: 8 oheren jantziak, zilarrezko zinta, idunekoa bere perlarekin, jantziak, kutxa, 6 zoronga eta koralezko aleak. Azpeitiko eta Getariako Madalenetarako erreal erdi bana eman zuen, eta Urkiolako San Antonentzat 2 librako kandelak. Arantzazura pertsona bat erromerian joango zen, eta Iturriotza ere bai. Pagineko ganaduak eta etxe berriko zilar, arreo eta tresneria aita Pedro Martinez Baltzolakoarenak ziren.

Bestalde, Martin Artzuriagak (edo Martin Itziarrek) 17 txanpon ken erreal bat zor zizkion, eta Katalina Baltzolak zilarra, eta Domingo Arretxetxikik 4 bat txanpon.

Maria Perezek aita Pedro Martinez Baltzolakoari ahalmen berezia eman zion Maria Perezen seme edo alabaren bati herenaren eta bostenaren hobekuntza egiteko. Seme-alaben administrazioa ere Pedro aitona eramango zuen. Seme-alaben seniparteak ere aitona Pedro Martinezek (Maria Perezen aitak) zehaztuko zituen. Joan Perez Altzolaraskoa senarrak ados egon beharko zuen Pedro Martinez Altzolaraskoa aitaginarrebarekin.

Pedro Martinez hemen aipatutako erabakiak hartu gabe hilko balitz, lehen testamentuan agindutakoa beteko litzateke. Testamentuan lekuko hauek izan ziren: Joan Otxoa Artazubiagakoa, Esteban Artazubiaga eta Migel Artazubiaga.

Maria Perezek ez zekien sinatzen. Beraz, hemen aipatutako kontu guztiak buruz zekizkien, hau da, oso oroimen ona zuen (ikus [XVI. m. (32-VII) 5] agiria).



2.22. irudia.
Txiribogako Kortazar.

- 1532-VII-22an, Zestoako Kortazar baserrian, bertako Martin Perez Kortazarkoak testamentua egin zuen Blas Artazubiaga eskribauaren bidez. Lehenago, 1527-V-22an, egina zuen beste testamentu bat (ikus *III ZESTOA XVI. MENDEAN (1521-1530)* liburuko [XVI. m. (27-V) 17] eta [XVI. m. (27-V) 18] agiriak). Beraz, lehenagoko testamentua ontzat emanaz, beste honek hura osatu egingo zuen.

Martin Perezen biloba Katalina Ereñorekin ezkondu zenean, 45 dukat agindu zizkioten, eta 25 kobratu zituen. Beste 20 dukatak Domenja Kortazar emazteak kobratuko zituen. Ezkontza-kontratu hartan aipatutako sei haritzak Domenja emazteak aukeratu eta kobratuko zituen.

Bestalde, Zumaiako Joan Etxezarretak 4 dukat zor zizkion; baita 12 florin arrunt ere. 32 txanpon kobratuta zeuzkan, eta gainerakoa Domenja emazteak jasoko zuen. Getariako Domikutza Berrasok 63 florin arrunt zor zizkion. Getarian bizi zen Martin Erkizia harakin tolosarrak dukat bat zor zion behi batengatik. Getariako Domikutza Mutiok 5 florin zor zizkion. Domenja Kortazar emazteak kobratuko zituen zor haiek.

Egun hartan Kortazarren Pedro Ausoroetxeak Martin Perezi 27 dukat ordaindu zizkion, eta Mar-

tinek kopuru hura Domingo Lizasoeta suhiari eman zion. Domingoren emazteak Kortazarko senipartea-gatik 32 dukat jaso behar zituen guztira, eta horrela 5 dukat kobratzea falta zitzaion. Pedro Ausoroetxeak, gainera, artean beste 24 dukat zor zizkion Martin Perezi. Haietako 14 dukat Joan Martin Indo suhiarentzat izango ziren, beste 5 dukat Domingo Lizasoetarentzat, eta gainerakoa Domenja emaztearentzat.

Horrez gain, Kortazar batxilerrak 6 dukat zor zizkion, eta Domenja Kortazar emazteak kobratuko zion zorra. Testamentuan lekuko hauek izan ziren: Zestoako Martin Legarda eta Joan Bengoetxea, eta Zumaiako Domingo Amilibia (ikus [XVI. m. (32-VII) 8] agiria).

2.1.15. Martin Artzuriagaren eta Pedro Otaloraren tratu eta agiriak

- 1532-I-15ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Anton Garate eta Joan Kamio hargin-maisuak zeuden. Anton, hain zuzen, Martin Artzuriagak izendatu zuen lan batzuk balioesteko, eta Joan Kamio Zestoako alkateak izendatu zuen, Joan Amilibiak inor izendatu ez zuelako. Joan Amilibiak Martini horma eta leiho batzuk eraiki zizkion, eta aipatutako bi hargin-maisuek, lanak aztertuta, erabakia eman zuten.

Guztira 40 “estado” luzerako hormak ziren, leiho, izkina eta hobekuntzekin.

Guztira 416 marai eta 5 erreal ordaindu beharko zion Martin Artzuriagak Joan Amilibiari. Eskribauari alde bakoitzak 5na erreal ordainduko zion. Antoni Martinek 2 erreal ordainduko zion, eta Joan Amilibiak Joan Kamiori beste 2.

Lekuko hauek izan ziren: Zumaiako Joanes Mendaro eta Joan Fernandez Dornutegikoa, eta Debako Domingo Arretxe (ikus [XVI. m. (32-I) 16] agiria).

- 1532-II-25ean, Zestoako errebaletan, Maria Joango Erlete eta Pedro Otalora Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean azaldu ziren. Maria Joango Grazia Artzubiaga zenaren alaba eta oinordekoa zen. Frantzisko Apategik, berriz, Grazia ama zenari zorra egin zion, eta alaba Maria Joangok ahalordea eman zion Pedro Otalorari zorra haren izenean kobra ziezaion.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Urbietta apaiza, Pedro Otxoa Artazubiagakoa eta Migel Artazubiaga (ikus [XVI. m. (32-II) 21] agiria).

- 1532-II-29an, Zestoako errebaletan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Arroako Fernando Sorazabal eta Pedro Otalora, eta Iraetako Joan Martinez Igartuakoa olagizona elkartu ziren. Joan Martinezek maileguz 6 dukat eman zizkien, eta arroarrek zorra hurrengo ekainaren amaierarako ordainduko zioten. Lekuko Zestoako Martin Artzuriaga eta Joan Kamio, eta Arroako Joan Egaña izan ziren (ikus [XVI. m. (32-II) 25] agiria).

Jarraian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Arroako Pedro Otalora eta Fernando Sorazabal azaldu ziren. Egun hartantxe biek Iraetako Joan Martinez Igartuakoari 6 dukateko obligazio-agiria eman zioten. Hala ere, zorra Pedro Otalorarena zen, eta hark konpromisoa hartu zuen Fernando Sorazabal obligazio hartatik onik ateratzeko (ikus [XVI. m. (32-II) 24] agiria).

- 1532-II-29an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Martin Artzuriaga (edo Martin Itziar) eta

Asteasuko Migel Agirre-Legarretagoikoa hargin-maisua bildu ziren. Migelek Martinen etxe berrian hormak eraikiko zituen, “estado” bakoitza 16 txanponetan. Martinek emango zizkion karea eta hondarra; baita ostatua eta ohea ere, lanak egin bitartean. Martinek 9 dukat aurrez eman zizkion lanagatik. 15 “estado” horma hurrengo abuztuko Andre Mariaren egunerako amaituko zituen, eta gainerakoa hurrengo San Joan egunetik urtebetera.

Kontratuan lekuko hauek izan ziren: Martin Zubiaurre, Joan Zubiaurre eta Joan Legarda, Zestoako eta Arroako biztanleak (ikus [XVI. m. (32-II) 26] agiria).

- 1532-IV-1ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Martin Artzuriaga eta Martin Arzallus elkartu ziren. Martin Arzallusek Maria Joanes Artazubiaga emazte zenarekin legezko seme-alabak izan zituen.

Maria Joanes emaztearen etxean bizi zenean Martin Artzuriagak zeukan etxeko arreo eta tresneria guztia (platerak, kutxak, burrunziak, etab.) eman egin zion Martin Arzallusi, eta honek ordainagiria eman zion Martin Artzuriagari. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Frantzisko Artiga, San Joan Olazabal eta Pedro Arizmendi (ikus [XVI. m. (32-IV) 4] agiria).

- 1532-IV-3an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Martin Artzuriaga (edo Martin Itziar) eta Pedro Egaña bildu ziren. Pedrok Martini, hurrengo San Joan egunerako, Etumeta inguruko Artzegiko muinotik 40 gapirio garraiatuko zizkion Zestoan eraikitzen ari zen etxe berriraino. 78 txanpon kobratuko zituen lanagatik, eta egur gehiago balego, proportzioan kobratuko zuen. Martinek aurrez dukata eman zion Pedrori, eta egurrak garriatutakoan ordainduko zion gainerakoa.

Kontratuan lekuko hauek izan ziren: Zestoako Domingo Lizarrarats eta Joan Akoa, eta Debako Anton Sasiola (ikus [XVI. m. (32-IV) 6] agiria).

- 1532-IV-30an, Aizarnazabalen, Zestoako Martin Artzuriaga eta Aizarnazabalgo Joan Atristain elkartu ziren Blas Artazubiaga eskribauarekin. Martinek

Joani bi behi bina txahalekin eman zizkion, lehenago egindako agiriaren arabera. Ganadu haiek 11 dukat eta 20 txanpon balio zuten, eta Joaneke Martini ordaindu egin behar zizkion. Behiak hipotekatuta geratu ziren Martinen alde, eta Joaneke erdi bana haziko zituen kontratuaren arabera.

Agirian lekuko hiru zestoak hauek izan ziren: Joan Martin Indo, Joan Aitzaga eta Pedro Egaña (ikus [XVI. m. (32-IV) 8] agiria).

- 1532-VI-10ean, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Iraetako Joan Martinez Igartuakoa olagizona eta Arroako Fernando Sorazabal eta Pedro Otalora elkartu ziren. Pedro Otalorak Joan Hernaniren bidez 6 dukat eman zizkion Joan Martinezi, eta honek Fernandori eta Pedrori ordainagiria eman zien. Lekuko zestoak hauek izan ziren: Domingo Lizarrats, Joan Amilibia eta Otxoa Arretxe (ikus [XVI. m. (32-VI) 1] agiria).

- 1532-VI-10ean, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Pedro Otalora eta Zumaiako Frantzisko Apategi elkartu ziren. Pedro, hain zuzen, Grazia Erlete zenaren oinordekoen prokuradore zen, eta Frantziskok Pedrori 5,5 dukat eman zizkion, Joan Hernani apaizaren eta Iraetako olagizonaren bidez. Pedrok Frantziskori ordainagiria eman zion.

Lekuko hiru zestoak hauek izan ziren: Domingo Lizarrats, Joan Amilibia eta Domingo Arretxe hargina (ikus [XVI. m. (32-VI) 2] agiria).

2.1.16. Zubiaurretaren eta Martin Perez Artzubiagakoaren agiriak

- 1532-II-29an, Zestoan, Grazia Martinez Zubiaurrekoak zeukan katilua pisatu egin zuten. 8 ontza ken 2 erreal pisatu zuen. Lekuko Martin Perez Artzubiagakoa, Joan Zabala eta Joan Zubiaurre izan ziren (ikus [XVI. m. (32-II) 23] agiria).

- 1532-III-10ean, Zestoako errebaletan, Blas Artazubiaga eskribauarengana hauek hurbildu ziren: bate-

rik Zestoako Maria Saustin Areitzagagoikoa, eta, bestetik, Maria Perez Zubiaurrekoa alarguna. Maria Saustinek Maria Perezi 9 dukat maileguz hartu zizkion, eta, hurrengo Pazko garizumakotik hasita, ondorengo lau urteko epean ordainduko zion zorra. Gainera, zorra ordaindu arte Maria Saustinek lursail bat hipotekatu egin zuen Maria Perezen alde. Lursailaren mugakideak hauek ziren: Joan Martinez Akoakoaren? sagastia, eta Erretzabalgo, Ibiakaizko eta Zubiaurreko lurrak.

Obligazio-agirian lekuko hauek izan ziren: Martin Artzuriaga, San Joan Egaña eta Pedro Gesalaga (ikus [XVI. m. (32-III) 3] agiria).

- 1532-V-15ean, Zestoan, Azpeitiko Martin Perez Erraztikoa olagizona eta Zestoako Martin Perez Artzubiagakoa azaldu ziren Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Azpeitiarrak zestoarrari 20 kintal burdina mehe emango zizkion ekainaren 20rako Beduako errenterian, zerga guztiak ordainduta. Zestoarrak olagizonari burdina haien balioa dirutan aurrez ordaindu zion.

Lekuko, Domingo Zabala, Joan Perez Arretzekoa eta Domingo Artazubiaga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-V) 8] agiria).

- 1532-VI-16an, Zestoako zubiko portalean, Blas Artazubiaga eskribauarengana Zestoako Martin Ibañez Zubiaurrekoa eta Asteasuko Migel Agirre-Legarretagoikoa hargin-maisua hurbildu ziren. Martinek Migeli uztarrirako idi pareak saldu zion 11 dukatean. Migelek 2 dukat hurrengo Domu Santu egunean ordainduko zizkion, eta 9 dukat hurrengo Pazko maiaitzekoan.

Migelek Martini 20 “estado” luzeko harrizko itxitura egingo zion harri lehorrez, Martinena zen Akoabarrenetik hasita Arretxe aldera. “Estado” bakoitza 100 sos kostatuko zen. Migelek hormaren kostua idien prezioetik deskontatu ahal izango zuen. Migelek urtebeteko epea zuen horma egiteko. Kontratuan lekuko zestoak hauek izan ziren: Esteban Artazubiaga, Martin Fernandez Edarritzagakoa eta Joan Zubiaurre (ikus [XVI. m. (32-VI) 6] agiria).

2.23. irudia. Zestoa
Erretzabaldik
begiratuta.



Egun berean, Zestoa, Blas Artazubiaga eskribauarekin bertako Martin Ibañez Zubiaurrekoa eta Debako Joan Arantza elkartu ziren. Bost bat urte lehenago idiak hartuta Joaneke Martini 12 dukateko zorra egin zion, eta egun hartan Joan Arantzak zorra ordaindu egin zion. Ondorioz, Martinek Joani ordainagiria eman zion (ikus [XVI. m. (32-VI) 7] agiria).

- 1532-VII-10ean, Zestoako errebaletan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek bildu ziren: Zestoako Martin Ibañez Zubiaurrekoa, Zumaiako Joan Mirubia eta Zarauzko Martin Izeta. Lehenak beste biei uztarrirako idi parek saldu zien 19 dukatean, eta hauek zestoarrari zorra hurrengo Pazko garizumakoan ordainduko zioten. Lekuko Domingo Urbietak apaiza, Martin Artzuriaga (edo Martin Itziar) eta San Joan Arretxe izan ziren.

Jarraian Joan Mirubiak konpromisoa hartu zuen Martin Izeta obligazio hartatik onik ateratzeko (ikus [XVI. m. (32-VII) 3] agiria).

- 1532-VII-27an, Zestoako errebaletan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Elgoibarko Joan Azkarate eta Zestoako Martin Ibañez Zubiaurrekoa elkartu ziren. Martinek Joani hezitako bi idi 6 dukatean saldu ziz-

kion, eta elgoibartarrak zorra hurrengo abuztuko Andre Mariaren egunetik urtebeteko epean ordainduko zion. Lekuko Zestoako Migel Artazubiaga, Pedro Martinez Igartuakoa eta Frantzisko Zubiaurre izan ziren (ikus [XVI. m. (32-VII) 10] agiria).

- 1532-XI-7an, Zestoa, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: Zestoako Martin Ibañez Zubiaurrekoa, eta Oiarzungo Martin Perez Aranederrekoa eta Bartolome Arbide batxilerra. Martin Ibañezi lehenagotik Oiarzungo Domingo Sarastik bi zor egin zizkion: bata 18 dukatekoa, eta bestea 16koa, eta korrejidorearen aginduz Martin Ibañezek ondasunak exekutatu egin zizkion. Martin Perez Aranederrekoa Domingo Sarastiren fidatzaile zen, eta korrejidoreak Domingo eta Martin Perez preso hartzeko agindua emana zeukan.

Auzia puntu horretan zegoela, Martin Perezek eta Bartolome Arbidek, Joan Izagirre eskribauaren aurrean, obligazio-agiria egin zuten Martin Ibañez Zubiaurrekoari 34 dukat ordaintzeko. Ondorioz, Martin Ibañezek beste biei bere agiri, epai eta aginduak eman zizkien, Domingo Sarastiri zor osoa kobratzeko eskubidearekin. Martin Ibañez ez zen Domingori exekutatuturiko ondasunen saneamenduaz arduratuko.

Lekuko Joanes Sistiaga, Martin Artzuriaga eta Migel Artazubiaga izan ziren (ikus [XVI. m. (32-XI) 3] agiria).

2.1.17. Joan Otaegiren, indotarren, Fernando Igartzaren eta Joan Arberen agiriak

- 1532-I-6an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Aiako Joan Otaegi eta Zestoako Maria Joango Barrenola aurkeztu ziren. Maria Joango, hain zuzen, Joan Agirreren alarguna zen, eta Domingo Agirre zenaren ama. Joan Otaegi aiarrak lehenago 40 dukateko zorra egin zion, eta egun hartan alargunari dukatak ordaindu egin zizkion. Ondorioz, Maria Joangok Joan Otaegi aiarrari ordainagiria eman zion.

Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Joan Otaegi, Martin Artazubiaga eta Martin Zulaika (ikus [XVI. m. (32-I) 11] agiria).

1530. urtean Martin Indok Katalina Leitzamendi hil egin zuen Zestoako Urbietan (ikus [XVI. m. (31-VIII) 22] agiria), eta orduko alkateak hiru urtez Zestoatik erbesteratzera eta 3.000 maraiko isuna ordaintzera kondenatu zuen. 1531-I-20an joan zen Martin Zestoatik kanpora, eta harrezkero Zarautzen kaliza

eman zion elizari Katalina zenaren alde, eta limosnak ere eman zituen.

Zestoan Katalinaren senideek barkatu egin zioten hilketa Martin Indori, eta orduan Martinek enperadorearen emazteari mesede eskatu zion erbestealdia eten ziezaion. Martinek seme-alaba ugari omen zituen eta pobre bizi omen ziren. Enperatrizak erbestealdiko azken bi urteak barkatu zizkion, 1531-IX-16an Valladoliden egindako zedularen bidez.

- 1531-I-22an, Zestoako Liliko errekararen ondoan, Blas Artazubiaga eskribaua eta Martin Perez Artazubiagakoa alkatea zeuden Zestoako partean, eta errekaraz beste aldera (Debako partean) Martin Indo, enperatrizaren zedularekin. Alkateak bere informazioa lortu ondoren, Martin Indo, erreka gaineko zubitxo zeharkatuta, Zestoako lurretara sartu zen. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Urbieta, Migel Artazubiaga eta Joan Olazabal (ikus [XVI. m. (32-I) 20] agiria).

- 1532-I-28an, Zestoako elizan, Blas Artazubiaga eskribaua bertan zela, Martin Indo etorri zen. Urta-rrilaren 28an, igandez, Martin Indo meza nagusira joan zen alkatearen epaiak zioen penitentzia betetzera. Jendaurrean kapelurik, kaparik eta zapatarik gabe azaldu zen, eskuan kandela piztuta zeukala.



2.24. irudia.
Txiribogako Indo etxea.

Lekuko, besteak beste, zestoar hauek izan ziren: Joan Otxoa Artazubiagakoa, Joan Perez Arretzekoa eta Pedro Olazabal (ikus [XVI. m. (32-I) 23] agiria).

- 1531-II-3an, Martin Indok enperatrizaren zedula originala erakutsi zuen, eta eskatutako bakoitzean erakustekotan geratu zen (ikus [XVI. m. (32-I) 20] agiria).

- 1532-III-17an, Zestoan, Martin Ibañez Zubiaurrekoa eta Domingo Arretxe arbitroak Blas Artazubiaga eskribauarekin bildu ziren. Joan Otaegi harrizko horma eraikitzen ari zen Blas Artazubiagaren baratzean, eta auzia zuen harrien garraioaz Martin Gabiriarekin. Biek aukeratu zituzten aipatutako arbitroak, eta hauek epaia eman zuten.

Martin Gabiria kondenatu egin zuten hurrengo apirilean Ertxiñatik baratzeko hormaraino harria eramatera, Joan Otaegik han 24 “estadoko” horma amaitu arte. Joan Otaegik Martini lehenago emandako dukataz gain, Gaztelako hiru erreal emango zizkion garraiatzen hasten zenean, eta beste hiru erreal garraioa amaitzen zuenean. Auzi-gastuak alde bakoitzak bereak ordainduko zituen, eta Zestoako alkateak eman zuen epaiaren gastuak erdi bana.

Arbitroek epaia eman zutenean lekuko hauek zeuden: Martin Perez Artzubiagakoa, Domingo Artazubiaga eta Domingo Ezenarro (ikus [XVI. m. (32-III) 7] agiria).

- 1532-V-30an, Zestoako errebelean, Joan Otaegi eta Joan Arano Maria Anton Indorekin bildu ziren, bertan Blas Artazubiaga eskribaua zela. Maria Anton, hain zuzen, Martin Ganbararen emaztea zen, eta Joan Otaegik preso zegoela egindako gastu batzuk ordaindu zituen. Joan Otaegik egindako zorrak Joan Aranok ere bere gain hartu zituen, eta biek obligazio-agiria eman zioten Maria Antoni. Zorra, batetik, 3 dukat eta 12 txanponekoa zen, eta, bestetik, 456 marai eta 35 txanponekoa, auziko eta kartzelako gastuengatik.

Agirian lekuko hauek izan ziren: Zestoako Martin Artzuriaga eta Joango Olazabalegi, eta Debako Anton Sasiola. Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean

zirela, Joan Otaegik konpromisoa hartu zuen Joan Aranok obligazio hartatik onik ateratzeko (ikus [XVI. m. (32-V) 14] agiria).

- 1532-VIII-10ean, Ibañarrietan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Joan Arbek bertako Fernando Igartzari ordainagiria eman zion. Lehenago Fernandok Joani 22 kintal burdinako zorra egin zion Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren aurrean. Zorra ordaintzen ez ziolako, Joanez ondasunak exekutatu egin zizkion Fernandori, eta bere zorra horrela kobratu zuen. Auzi-gastuak Fernandok ordainduko zituen.

Ordainagirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Sebastian Artazubiaga, Martin Indo eta Frantzisko Altzolarats (ikus [XI. m. (32-VIII) 4] agiria).

- 1532-VIII-10ean, Beaingo San Lorenten, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Joan Urainziar mazolaria eta Joan Arbe bildu ziren. Joan Urainziarrek zamaketarako bi zaldi erosi zizkion Joan Arberi 24 dukatean, eta zorra honela ordainduko zion: 10 dukat hurrengo Eguberri egunerako, beste 12 dukat hurrengo urteko San Migel egunean, eta beste 2 dukat 1532ko San Migel egunerako Joan Arberen izenean Beduako erreteriatik Lasako burdinolara Domingo Lizarratsentzat burdin mea garraiatuz.

Lekuko Zestoako Martin Artzuriaga, Domingo Artazubiaga eta Migel Artazubiaga izan ziren (ikus [XVI. m. (32-VIII) 5] agiria).

- 1532-VIII-10ean, Ibañarrietan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Fernando Sorazabal eta Fernando Igartzza, eta Zumaiako Joan Iruña elkartu ziren. Joanez bi arroarrei 27 kintal burdina pletinaren balioa maileguz eman zien, eta hauek zorra hurrengo Eguberri egunerako ordainduko zioten Beduako edo Narruondoko erreterian burdinak utzita.

Jarraian, Fernando Igartzak konpromisoa hartu zuen Fernando Sorazabal obligazio hartatik onik ateratzeko. Lekuko Zestoako Frantzisko Altzolarats eta Arroako San Joan Ermua eta Martin Otxoa Ermukoa



2.25. irudia.
Arroaerrekako
Errementari.

izan ziren. Ondoren eskribauaren aurrean Joan Errementari (Arroakolako olagizona) eta emazte Madalena Arrona aurkeztu ziren. Haiek ziotenez, Joan Errementari, lehenago egindako zorreratik, preso egon zen, eta Joan Igartzak Joan Iruñari egindako zorra hura kartzelatik askatzeko zen. Beraz, Joan Errementari eta emazteak konpromisoa hartu zuten Fernando Igartza Joan Iruñari egindako obligaziotik onik ateratzeko. Lekuko Zestoako Sebastian Artazubiaga, Frantzisko Altzolarats eta Martin Indo izan ziren (ikus [XVI. m. (32-VIII) 7] agiria).

- 1532-VIII-10ean, Ibañarrietan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Joan Arbek Fernando Igartzari ordainagiria eman zion, zorretan zeuzkan 22 kintal burdinak ordaindu egin zizkiolako. Zorraren ondorioz izandako auzian, merioaren eta eskribauaren gastuak Fernando Igartzak ordaintzeko geratu ziren. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Sebastian Artazubiaga, Martin Indo eta Frantzisko Altzolarats (ikus [XVI. m. (32-VIII) 8] agiria).

- 1532-VIII-10ean, Beaingo San Lorenten, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Joan Martin Indo eta Migel Sorazabal elkartu ziren. Joanek Migeli eskubidea eman zion Martin Txiribogari 3 dukateko zorra eta 1 dukat eta 10 txanponeko auzi-gastuak

kobratzeko. Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Migel Artazubiaga, Martin Indo eta Joan Zuube (ikus [XVI. m. (32-VIII) 9] agiria).

2.1.18. Joanes Areitzaga, Joan “Gorri”, Domingo Aldalur eta Joan Arregiren agiriak

- 1532-I-3an, Zumaian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: Zumaiako Joan Bergara, pinaza edo zamaontzia zuena, eta Azpeitiko Barrerolako Migel Martinez Olaberrietakoa olagizona. Joan Bergarak 4 dukat eta Gaztelako 8 erreal jaso zituen, eta gordeta edukiko zituen Migelek eskatu arte. 4 dukatak eskura eman zizkion Migelek, eta 8 errealak auzi-gastuenak ziren; izan ere, burdin meari buruzko kontratua ez betetzeagatik Migelek auzia ipini zion Joani korrejidorearen aurrean. Gero, ordea, akordioa lortu zuten.

Agirian lekuko Zumaiako Joanes Areitzaga apaiza eta San Joan Agirre, eta Zestoako Martin Artzuriaga izan ziren (ikus [XVI. m. (32-I) 6] agiria).

- 1532-I-3an, Zumaian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek elkartu ziren: batetik Azpeitiko Joanes Olaberrieta hauspogilea (aita Migel Mar-

tinez Olaberrietakoa olagizonaren prokuradore gisa), eta, bestetik, Zumaiako Joan Bergara pinazazalea.

Lehenago Migel Martinezek eta Joan Bergarak kontratua egin zuten, honek bere zamaontzian hiru bidaiatan Geletako portutik Beduakoara berehala 600 kintal burdin mea ekar zituzan, baina gai horri buruz auzia izan zuten; izan ere, Joan Bergarak 20 dobloi (40 dukat) jaso zituen lan horretarako, eta bidaiak ez zituen egin.

Gero, ordea, Joan Bergarak 18 dobloi itzuli egin zituen, eta beste 2 dobloi eta auzi-gastuen 8 errealengatik obligazio-agiria eman zion Migeli. Orduan, Joan Olaberrietak 18 dobloiak (36 dukat) Zumaiako Maria Otxoa Sasiolakoaren esku utzi zituen. Maria Otxoak eta seme Joanes Areitzaga apaizak zatika ordainduko zizkieten Joan Bergararen zamaontzikoei burdin mea Beduaraino ekarri ahala (12 dukateraino bidaia bakoitzean). Diru harekin burdin mea erosi eta pleitamendua (9 marai kintal bakoitzeko) ordainduko zuten.

Agirian lekuko hauek izan ziren: Zestoako Martin Artzuriaga merioordea, eta Zumaiako Joanes Areitzaga eta San Joan Agirre. Kontuan hartu behar da lekuko azaltzen den Joanes Areitzaga apaiza, hain zuzen Joan

Sebastian Elkanok 1525ean Moluketarantz abiatutako bigarren espedizioan Santiago Gebara lehengusuaren *Santiago* patatxean joandako berbera dela. Sinadura aztertuta, garbi dago Joanes Areitzaga espediziokoa dela. Hemen azaltzen denez, Joan Areitzaga apaiza Zumaiako Maria Otxoa Sasiolakoaren semea zen (ikus [XVI. m. (32-I) 6] agiria).

- 1532-II-5ean, Aizarnan, Joan "Gorri" Gorriaran eta Domingo Lizasoeta-Ormaetxea azaldu ziren Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Aurreko urtean, martxoaren 2an, Joanen seme Nikolas eta Domingoren alaba Maria ezkondu ziren (ikus [XVI. m. (31-III) 1] agiria). Joanek orduan agindutako dukat guztiak ordaindu zituen, eta Domingok azken 33 edo 34 dukaten ordainagiria eman zion.

Lekuko Esteban Artazubiaga, Joan Ereño eta Martin Argin zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-II) 7] agiria).

- 1532-II-20an, Aizarnan, Domingo Aldalur eta Anton Altzolarats azaldu ziren Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Domingoren lursail batean Anton-ek sagasti berria sortu eta ustiatuko zuen erdi bana. Lursailak mugakide Aizarnako Potzuetako eta Zaballako lurak zituen.

2.26. irudia. Aizarnako Aldalur.



Antonek, hurrengo martxotik hasita, urtebeteko epean aldatuko zituen sagar-landareak. Bi aldeek erdi bana ordainduko zuten. Gero, sagastiak urtean 40 otar sagar eman arte, zegoen sagarra Antonek beretzat eramango zuen. 40 otar baino gehiago ematen hasten zenean, Antonek urtero sagarraren erdia jasota eta piloa eginda utziko zion Domingori. Sagastia zahartu eta desegiten zenean, Antonek sagastia utzi egin beharko zuen.

Antonek urtean bitan aitzurtuko zituen sagarrondoak, eta bi urtez behin simaurtuko zituen, ohi bezala. Sagar-landareren bat e do beste ihartzen baldin bazen, Antonek ordezkioak aldatu ahal izango zituen. Sagastia hesitzeko eta itxiturak ipintzeko gastuak erdi bana ordainduko zituzten. Antonek sagastian besteren ganaduren bat bahitzen baldin bazuen, Domingok Aldalurko etxean lekua utziko zion gordezko. Antonek sagastian egindako laboreak beretzat jasoko zuen, baina artatxikiaren laurdena Domingorentzat izango zen.

Kontratuan lekuko hauek izan ziren: Joan Martinez Olotzagakoa kontularia, Joan Amilibia hargin-maisua eta Joanes Potzueta apaiza (ikus [XVI. m. (32-II) 17] agiria).

- 1532-III-10ean, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Domenja Akoa (Anton Altzolaratsen emaztea) eta Joan Arregi-Zabala bildu ziren. Joanen aitagarreba Ramus Zabalak 5,5 dukateko zorra egin zion lehenago Domenjari, eta Joan Arregi-Zabalak zorra bere gain hartu zuen. Erdia hurrengo inauterietan ordainduko zion, eta beste erdia urtebete geroago.

Obligazio-agirian lekuko hauek izan ziren: Martin Indo, Lope Amilibia eta Joan Zulaika "Beltza" (ikus [XVI. m. (32-III) 2] agiria).

- 1532-V-3an, Zestoako errebaletan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean zestoar hauek elkartu ziren: Joan "Gorri" Gorriaran, Domingo Areitzaga eta emazte Katalina Ezenarro, eta Katalina Akertza

(Pedro Ezenaroren emaztea). Joan "Gorri"ren semea Lizasoeta-Ormaetxeara Katalina Ezenaroren alabarekin ezkondu zenean, hark dotea agindu zuen. Ezkontza-kontratuan agindutako dotearen lehen herena ordaindu zuen Joan "Gorri" Gorriaranek: 23 dukat Domingori eta emazte Katalinari, eta 10 dukat Katalina Akertzari eta honen senarrari. 10 dukat horiek Joan "Gorri"ri kobratzeko eskubidea Domingok eta emazteak eman zieten.

Joan "Gorri"ri ordainagiriak eman zizkioten, lekuko zestoar hauek aurrean zirela: Joan Otxoa Artazubiagakoa apaiza, Joan Martinez Lilikoa apaiza eta Martin Perez Artazubiagakoa (ikus [XVI. m. (32-V) 4] agiria).

- 1532-V-20an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domingo Aldalur eta Maria Martinez Altzolarats-Intzinakoa azaldu ziren. Domingok Maria-ri hurrengo Andre Mariaren egunerako 2 dukateko zorra ordainduko zion, eta horrenbestez bien artean egun hartara arte izandako kontratuaren kontuak garbituta geratu ziren; baita Domingoren gurasoek Joan Gebara apaiz zenarekin izandako harremanen kontuak ere.

Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Zabala, Martin Perez Artazubiagakoa eta Domingo Aranguren (ikus [XVI. m. (32-V) 9] agiria).

- 1532-VII-25ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Maria Anton Indo eta Joan Arregi-Zabala elkartu ziren. Maria Anton, hain zuzen, Martin Ganbararen emaztea zen, eta senarrak Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren aurrean emandako ahalordea zeukan.

Lehenago, Joan Arregi-Zabalak 5,5 dukateko zorra egin zion Maria Antoni, eta egun hartan ordaindu egin zion. Ondorioz, Maria Antonek ordainagiria eman zion Joani. Lekuko Zestoako Domingo Aspe eta Domingo Aldalur, eta Aiako Joan Zinkunegi izan ziren (ikus [XVI. m. (32-VII) 9] agiria).

2.1.19. Beste zenbait kontratu eta agiri

- 1532-I-1ean, Aizarnan, Joan Pagino eta Domingo Aranguren azaldu ziren Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Joaneke Domingori bi eta hiru urte bitarteko zekorra saldu zion 2 dukat eta 10 txanporean, eta Domingok kopuru hura ordaindu egin zion. Horrez gain Domingok Joani 2 dukat maileguz eman zizkion, eta Joaneke zorra hurrengo Pazko garizumakoan ordainduko zion.

Agirian lekuko Zestoako Joan Ereño, Martin Legarda eta Joan Arregi-Zabala izan ziren; baita Zumaiake Ramus Gorosarri ere (ikus [XVI. m. (32-I) 1] agiria).

- 1532-I-3an, Azpeitian, Blas Artazubiaga eskribauarekin Azpeitiko Joan Egibar elkartu zen. Joan Egibarrek zioenez, hura eta Martin Eztiola maisua Joan Larretxeren eta honen lagunen fidatzaile gisa aurkeztu ziren; izan ere, hauek auzia zuten Otxoa Martinez Beduakoarekin, honen errotaren presako harriei buruz (ikus *III ZESTOA XVI. MENDEAN (1521-1530)* liburuko [XVI. m. (30-VI) 14] agiria).

Joan Larretxe eta lagunak kartzelara sartu zituzten korrejidorearen aginduz, eta Joan Egibar eta Martin Eztiola ere bai. Orduan Joan Larretxek Joan Egibarki Gaztelako 30 erreal ordaindu zizkion, eta auzi-gastu batzuk

ere bai. Ondorioz, Joan Egibarrek ahalmena eman zion Joan Larretxeri diru haiek honen lagunei kobratzeko.

Agirian lekuko azpeitiar hauek izan ziren: Pedro Ruiz Agirrekoa, Pedro Izagirre eta Pedro Uranga (ikus [XVI. m. (32-I) 5] agiria).

- 1532-I-6an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Aiako Martin Auzkue (edo Azkue) eta Aizarnan bizi zen Martin Azkue semea elkartu ziren. Semeak aitari maileguz 24 dukat eman zizkion, eta zorra hurrengo Eguberri egunerako ordainduko zion. Lekuko Joan Martinez Lilikoa, Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Joanes Potzueta apaizak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-I) 10] agiria).

- 1532-I-14an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria Etorra alarguna eta Martin Gabiria azaldu ziren. Mariak Domingori 102 txanpon zor zikion, eta 3 txanponeko auzi-gastuak ere bai. Egun hartan Mariak Domingori dena ordaindu zion, eta honen hari ordainagiria eman zion, lekuko hauek bertan zirela: Klemente Aisoro, Joan Arretxe eta Frantzisko Altzolarats (ikus [XVI. m. (32-I) 15] agiria).

- 1532-II-5ean, Aizarnan, Debako Maria Martinez Erletekoa eta Zestoako Martin Ezenarro elkartu ziren. Martinek Mariari 3 dukat maileguz hartu zizkion, eta

2.27. irudia. Azpeitiko Loiolako Egibar etxea.



zorra hurrengo San Joan egunean ordainduko zion. Blas Artazubiaga eskribauak idatzitako obligazio-agirian lekuko hauek izan ziren: Zestoako Joan Arretxe eta Domingo Aldalur, eta Debako parteko Joan Baltzola (ikus [XVI. m. (32-II) 6] agiria).

- 1532-II-12an, Zestoako Joan Ibañez Amilibikoa eskribauak gortean idazti bat aurkeztu zuen. Bertan zioenez, Zestoako Kontzejuko alkate, fiel eta ordezkariak Pedro Otxoa Artazubiagakoari eman zioten eskribau-postua, eta Joan Ibañezek auzitara eraman zituen. Blas Artazubiaga eskribauak agiri faltsua egin omen zuen, Pero Otxoaren aldeko botoak bakarrik aipatuta, baina Joan Ibañezek aldeko boto gehiago omen zituen, eta Blas Artazubiagak hori ez omen zuen aipatu. Erregearen Joan Vazquez idazkariak eskaera jasotzea eta prozesuari eranstea nahi zuen Joan Ibañezek (ikus [XVI. m. (32-II) 11] agiria).

- 1532-II-18an, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: bateatik Joan Arbestain (edo "Joan Akoa") eta Domenja Urbietak emaztea, eta, bestetik, Jakobo Gesalaga, Maria Lopez Gesalagakoa emaztea eta Pedro Gesalaga semea. Gesalagarrek Joan eta Domenja senar-emazteei 44 dukateko zorra egin zieten, baina zor hartatik 24 dukat Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari ordaintzeko agiria egin zuten aurreko abenduan (ikus [XVI. m. (31-XII) 6] agiria).

Otsailaren 18an, berriz, Jakobo Gesalagak Joan eta Domenjari 20 dukat ordaindu zizkien, eta hauek hari ordainagiria eman zioten. Lekuko Martin Zubiaurre, Martin Artzuriaga eta San Joan Egaña zestoarrak izan ziren. Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Domenja Urbietak zin egin zuen ordainagiri hark zioenaren aurka ez zela joango (ikus [XVI. m. (32-II) 15] agiria).

- 1532-IV-1ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Joan Akertza olagizona eta Osana Erretzabal bere alaba Domenja Aizarnarekin azaldu ziren. Joanek Ertxiña barrenean sagastia zeukan, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak, Joan Akoa eta Blas Artazubiagaren sagastien ondoan, eta ama-alabei bi urterako (aurreko

San Migel egunean hasita) errentan eman zien. Bi urteko errenta 4 dukatekoa zen, eta Joanek, aurrez kobratu zuelako, ordainagiria eman zien Osanari eta Domenjari.

Agirian lekukoetako bi Martin Artzuriaga (edo Martin Itziar) eta Martin Arano zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-IV) 1] agiria).

- 1532-IV-1ean, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domenja Belsodi eta Maria Ortiz Iraetakoa elkartu ziren. Domenjak Mariari Aizarnako Belsodi baserria errentan eman zion bi urterako. Errenta aldia iragan urteko San Migel egunean hasi zen, eta hurrengo urteko San Migel egunean amaituko zen. Mariak urte bakoitzaren amaieran dukat bateko errenta ordainduko zion Domenjari. Lekuko Zestoar hauek izan ziren: Migel Artazubiaga, Esteban Eztiola eta Anton Altzolarats (ikus [XVI. m. (32-IV) 3] agiria).

- 1532-IV-27an, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Azpeitiko Martin Barrenetxea eta Zestoako Pedro Martinez Baltzolakoa merkataria elkartu ziren. Martinek Pedrori hurrengo maiatzaren amaierarako ferratzeko 100.000 iltze emango zizkion Azpeitiko errebalean. Mila iltzek 9 libra pisatuko zuten. Erdiak kolpe bakarrekoak izango ziren, eta erdiak bi kolpekoak.

Pedro Martinezek iltzeen balio osoa aurrez ordaindu zion azpeitiarrari. Lekuko Domingo Zabala, Domingo Aspe eta Pedro Altzolarats izan ziren (ikus [XVI. m. (32-IV) 7] agiria).

- 1532-V-3an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zumaiako Nafarra Garro eta Maria Martinez Altzolaraskoa alarguna azaldu ziren. Nafarra Garrok Jorje Arantzaren izenean ordainagiria eman zien Maria Martinezzi eta Joan Ipintza semeari, hauek hari 4 dukat eta 20 txanpon eman zizkiotelako. Erregearen armadan Hugo Moncada kapitain zela egindako zerbitzuengatik zegokion diru hura Jorjeri.

Nafarra Garrok Zestoako Domenja Liliri 2 dukat eta 10 txanpon zor zizkion, eta diru hura Maria Martinezek

2.28. irudia. Itziarko
Arantzabekoa.



ordainduko zuen. Lekuko hauek izan ziren: Maria Perez Artazubiagakoa, Joan Otaegi eta Joan Akoa?

- 1532-VII-2an, Zestoako Lilin, Jakobo Ipintzak (Maria Martinezen semeak) aipatutako 2 dukat eta 10 txanponak ordaindu zizkion Domenja Liliri. Lekuko Domingo Aspe, Pedro Alzolarats eta Joaniko Gilistegi zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (32-V) 5] agiria).

- 1532-V-30ean, Zestoako errebalear, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Debako Joan Zugasti eta Aiako Joan Uhegun elkartu ziren. Joan Uhegun garai hartan Iturriozko bentan bizi zen, eta Joan Zugastiri zamaketa-zaldia, kolore ilunekoa, 6,5 dukatean saldu zion. Debarrak kopuru hura hurrengo Santiago egunean ordainduko zion.

Salerosketa-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Otaegi, Martin Artazubiaga eta Martin Artzuriaga (edo Martin Itziar) (ikus [XVI. m. (32-V) 15] agiria).

- 1532-VI-23an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek aurkeztu ziren: Grazia Zuube Joan Zubiaurre senarrarekin, eta ahizpa Maria Zuube eta Katalina Zuube. Hiru ahizpen Martin Zuube aita hil egin zen, eta zenbait ondasun eta diru kobratzeko utzi zituen. Joan Amilibia hargin-maisua, Joan Zuube zenaren oinordekoak eta beste hainbat pertsona ziren zordunak.

Zor haiek kobra zitzaten, hiru ahizpek ahalordea eman zieten honako hauei: Zestoako Joan Zubiaurre senarrari, Esteban Artazubiagari, Joan Arretxeri, Joan Martinez Ibañetakoari eta Domingo Zabalari, Gipuzkoako korrejimenduko Beltran Arizmendiri eta beste lau prokuradoreri, eta Valladolidko Kantzelari-tzako Joan Lopez Arrietakoari eta beste lau prokuradoreri. Ahalordean lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Artzuriaga, Martin Indo eta Joan Olazabal (ikus [XVI. m. (32-VI) 13] agiria).

- 1532-VI-25ean, Zumaian, Joan Perez Elorriagakoa eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Zestoako Katalina Mirubia alarguna eta Zumaiaiko Martin Diaz Mirubikoa, eta, bestetik, Joan Ruiz Arteagakoa. Joan Ruizek beste biei 6 dukat mailleguz eman zizkien, eta hauek hurrengo Pazko garizumakoan ordainduko zioten zorra.

Jarraian, Katalinak konpromisoa hartu zuen Martin Diaz obligazio hartatik onik ateratzeko. Lazaro Zumaia sinatu zuen agiria Katalinaren ordean, honek idazten ez zekiela (ikus [XVI. m. (32-VI) 14] agiria).

- 1532-VII-27an, Zestoako errebalear, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Joan Otxoa Artazubiagakoa apaiza, eta, bestetik, Margarita Zuube alarguna eta Joan Apategi. Azken biek

Joan Otxoari obligazio-agiria eman zioten 5 dukat eta 2 erreal hurrengo Eguberrietarako ordaintzeko.

Joan Apatetik lehenago 5 dukateko zorra egin zion Joan Otxoari Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren aurrean, eta ordaindu ez ziolako Joan Otxoak ondatsunak exekutatu egin zizkion. Orain beste bi erreal eman zizkien Joan Otxoak Margaritari eta Joan Apatetigiri, baina zor haiek gauza bera ziren eta zor bakar gisa hartu zuten.

Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Jakobo Ipintza, Martin Artzuriaga (edo Martin Itziar) eta Lasan morroi zegoen Martin Aranguren (ikus [XVI. m. (32-VII) 11] agiria).

- 1532-VIII-10an, Ibañarrietako San Lorenten, Blas Artazubiaga eskribauarekin Zestoako Martin Arano mandazaina eta Getariako Maria Otxoa Sorazabalgoa elkartu ziren. Elkarren artean izandako tratuen kontuak eginda, Martini 4 dukateko zorra azaldu zitzaion. Bi dukat handik urtebetera ordainduko zizkion Maria Otxoari, eta beste biak urtebete geroago.

Obligazio-agirian lekuko hauek izan ziren: Zestoako Joan Lizarrarats eta Frantzisko Altzolarats, eta Debako Frantzisko Sorazabal (ikus [XVI. m. (32-VIII) 3] agiria).

- 1532-IX-5ean, Zestoako Urbietan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domenja Ausoroetxea alarguna azaldu zen. Getariako Marina Izetak dukata eta 30 txanpon zor zizkion arropa batzuk salarazi zizkiolako, eta zor hura kobratzeko ahalordea eman zien Domenjak Getariako Joan Martinez Mantelolakoari, izen-deitura bereko bilobari eta Joan Seguroolari.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Ondalde, Sebastian Artazubiaga eta Joan Otaegi. Domenjaren Pedro Ausoroetxea semeak sinatu zuen ahalordea amaren izenean (ikus [XVI. m. (32-IX) 2] agiria).

- 1532-IX-8an, Zestoako errebaletan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Debako Maria Martinez

Azokekoa alarguna eta Zestoako Domenja Zuube elkartu ziren. Mariak Domenjari zorra egin zion, 12 errealeko balioa zuten harizko ehunak hartuta, eta diru hura hilabete barru ordainduko zion. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Otxoa Artazubiagakoa, Domingo Aldalur eta Domingo Azpuru (ikus [XVI. m. (32-IX) 3] agiria).

- 1532-IX-8an, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Katalina Akertza eta Martin Ezenarroazpikoa elkartu ziren. Katalinak, Pedro Akoa senarraren baimenaz, ordainagiria eman zion Martini, honek lehenago Joan Martinez Ibañetakoa eskribauaren aurrean egindako 6 dukateko zorra ordaindu egin ziolako.

Ordainagirian lekukoetako bi Frantzisko Artiga eta Martin Amilibia izan ziren (ikus [XVI. m. (32-IX) 4] agiria).

- 1532-IX-9an, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Joan Arano eta Aiako Migel Agineta bildu ziren. Joane Migeli 6 dukat balio zuten idia zorretan hartu zion, eta dirua hurrengo Eguberrietan ordainduko zion. Lekuko Zestoako Domingo Urbietak eta Matxin Ezenarro eta Debako Martin Ezenarro izan ziren (ikus [XVI. m. (32-IX) 6] agiria).

- 1532-IX-2an, Zestean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Azpeitiko Joan Ernataritz eta Zestoako Lope Ernataritz anaia elkartu ziren. Bi anaien artean izandako harremani buruzko kontuak egin zituzten. Lope Ernataritzek Maria Uztaetari 40 txanpon ordainduko zizkion. Lekuko Zestoako Domingo Lizarrarats eta Martin Artzuriaga (edo Martin Itziar), eta Azpeitiko Domingo Aizarna izan ziren (ikus [XVI. m. (32-IX) 12] agiria).

- 1532-X-22an, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: batetik, Arroako Martin Ibarrola, Domenja Ibarrola eta Fernando Sorazabal, eta, bestetik, Zestoako Frantzisko Olazabal. Hiru arrotzek zestoarrari 40 kintal burdina pletinaren balioa maileguz hartu zioten, eta beren zorra hurrengo martxoaren 1ean ordainduko zuten, burdinak Beduako errenterian zergak ordaindu-

2.29. irudia. Aizarnako Arano.



ta emanda. Lekukoak Zestoako Migel Artazubiaga eta Arroako Pedro Otalora eta Martin Ermua izan ziren.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Martin Ibarrolak eta Domenja Ibarrolak konpromisoa hartu zuten Fernando Sorazabal obligazio hartatik onik ateratzeko (ikus [XVI. m. (32-X) 3] agiria).

- 1532-XI-2an, Azpeitian, Azkoitiko Frantzisko Perez Idiakaizkoa eskribauaren aurrean Zestoako Martin Fernandez Edarritzagakoa azaldu zen. Maria Zabalarekin eta honen ahizpekin auzia zuen, eta ahalordea eman zien Gipuzkoako korrejimenduko eta Valladolidko Kantzelaritzako hainbat prokuradoreri. Korrejimendukoak hauek ziren: Beltran Arizmendi, Joan Lopez Etxanizkoa, Frantzisko Lopez Gallaistegikoa eta beste zazpi. Valladolidko prokuradoreak hauek ziren: Frantzisko Oro, Joan Otxoa Urkizukoa, Madrigal batxilerra e Joan Lopez Arrietakoa.

Ahalorde-agirian lekuko hauek izan ziren: Domingo Aroztegi, Migel Garin eta Domingo Beristain (ikus [XVI. m. (32-XI) 1] agiria).

- 1532-XI-5ean, Zumaian, Blas Artazubiaga eskribauarekin Segurako Kristobal Iñurrategi eta Zumaiako Martin Fernandez Otsangokoa bildu ziren. Zumaiarrak segurarrari, erositako ardo, linazi eta gatza ordaindu egin zizkiolako, ordainagiria eman zion. Lekuko hiru hauek

izan ziren: Joanes Mendaro, Antonio Eguzkitza eta Joan Mirubia (ikus [XVI. m. (32-XI) 2] agiria).

- 1532-XI-22an, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauak ordainagiria idatzi zuen. Bertan zioenez Zestoako Maria Perez Baltzolakoak (Pedro Martinez Baltzolakoaren alabak), 12 dukateko zorra kobratu egin zuen, Aiako Joan Lertxundik, Iñigo Narbartek eta hauen fidatzaileek ordainduta. Lekukoetako bat Zestoako Domingo Zabala izan zen (ikus [XVI. m. (32-XI) 5] agiria).

- 1532-XII-31n, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Aizarnazabalgo Martin Intxaurregi eta Zestoako Martin Azkue bildu ziren. Zestozabaldarrari 86 txanpon maileguz hartu zizkion, eta zorra hurrengo inauterietan ordainduko zion. Lekuko Martin Perez Artzubiagakoa, Martin Ondalde eta Matxin Legarda izan ziren (ikus [XVI. m. (32-XII) 1] agiria).

2.1.20. Gipuzkoako Batzarrak

1532. urtean Gipuzkoako Batzar Nagusiak Tolosan (apirilaren 13tik 23ra) eta Arrasaten (azaroaren 14tik 24ra) izan ziren¹. Batzar Bereziak ere izan ziren Azkoitiko Basarten abuztuaren 12an, 2.1.2. atalean adierazi dugunez. Zestoako Domingo Zabala eta Domingo Lizarrarats fiela izan ziren Zestoako prokuradore, bi egun lehenago Kontzejuak emandako ahalor-



2.30. irudia.
Arrasateko udaletxea.

dearen bidez. Dena den, Batzar Berezi hauen berririk ez dugu beste inon topatu.

Tolosako Batzar Nagusietan Diego Ruiz de Lugo korrejidorea izan zen, eta Zestoatik prokuradore Blas Artazubiaga eskribaua bidali zuten. Martin Santxez Antxietakoa batxilerra izan zen bertako lehendakari.

Batzar haietan Donostiako Domingo Goizuetaren lekukotza aurkeztu zuten Genoako eta Italiako hizkuntzetan, Oran hirian mairuen menpetik nola atera zuten eta kristau-lurretara nola itzuli zen adieraziz.

Burdina pisatzeko erregeak onetsitako ordenantzak zioenez, kintala 150 librakoa zen. Auzia zuten, ordea Probintziak eta Errege-kontseiluak. Segurako prokuradoreak kintala 155 libratan ezartzea eskatu zuen. Zestoako prokuradoreak aurka egin zion.

Gariaren neurriak, berriz, Bergaran zegoen ereduaren arabera egingo ziren. Lehenago Mutrikuko Batzar Nagusietan (1531ko azaroan) agoteei eta erlijioz aldatutakoei buruz emandako epaiak bete zitzatela agindu zuten, nahiz eta batzuek epaiaren aurka gora jo.

Txanponei zegokienez, Nafarroan txanpona zenbat maraikoa zen jakin nahi zuten. Batzar Nagusi haietan San Adriango bideak, bertako alkaidearen gehiegikeriak, bizkaitarrekin Flandesko kontsulatuaz eta burdin meaz zituzten gorabeherak, Hondarribiko artzapez-barrutia Baionatik atera eta Iruñeko elizbarrutian sartzeko egindako lanak, bideak garbitzea eta beste hainbat aztergai izan zituzten².

Arrasateko Batzar Nagusietan, Probintziako korrejidorea ere bertan zelarik, Kristobal Zabaleta prokuradoreak parte hartu zuen Zestoako Kontzejuaren izenean. Erregeak Probintziari egindako diru eske batez ere hitz egin zuten. Probintziaren Igorpen-alkatea hautatu zuten, eta Zestoak Arrasateko Martin Aldaetaren aldeko botoa eman zuen. Probintziak neurriak hartu zituen kanpotik sartuta urez nahastuta saltzen ziren sagardoez. Beste hainbat aztergai ere izan zuten Batzar haietan³.

Karlos V.a enperadoreak Gipuzkoako Probintziari berretsitako Ordenantzetan hiribilduetako alkateek gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jakin behar zutela ezartzen zen. Arau hura ez zegoen Foruetan, baina Donostia (1530. urteaz gero) eta Tolosa (1532. urteaz gero) betetzen hasi ziren⁴.

2.2. BIGARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ ORELLA UNZUE, J. L. *Estudio iushistórico de las Juntas de Gipuzkoa hasta 1550*, in *Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (252. or.).

² XX. Registro de las Juntas Generales celebradas por la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa en la Villa de Tolosa del 13 al 23 de Noviembre de 1532. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1935. (1-12. or.).

³ XX. Junta General celebrada en la villa de Mondragon por noviembre del año de 1532. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa. JD AM 1,4.(1-9. or.)

⁴ TRUCHUELO GARCIA, S. *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI - XVIII)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1997. (83. or.).

